


# Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna



## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# **GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA**

## **AURKIBIDEA**

### **1. GAITASUNAREN EZAUGARRIAK**

- a. Justifikazioa
- b. Definizioa
- c. Osagaiak
- d. Bigarren Hezkuntzarako deskripzioa
- e. Irakasgaien ekarpenak matematikarako gaitasuna garatzeko

### **2. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENENERAKO**

- a. Orientabide orokorrak
- b. Orientabide zehatzak

### **3. OINARRIZKO GAITASUNEN EBALUAZIORAKO ORIENTABIDEAK**

- a. Orientabide orokorrak
- b. Ebaluazio-tresnak
- c. Ebaluazio-tresnen ereduak

### **4. MATERIAL DIDAKTIKOA**

- a. Sekuentzia didaktikoaren ezaugarriak
- b. Sekuentzia didaktikoaren planifikazioa
- c. Gaitasunen inguruan lan egiteko material egokiak

### **5. BIBLIOGRAFIA**

### **6. ERANSKINA**

# 1. GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNAREN EZAUGARRIAK

## a. Justifikazioa

Azken aldian, gizarteak bizi izan dituen askotariko aldaketek bultzatuta, eta gizarteak hezkuntza-sistemei egiten dizkien eskakizunen ondorioz, aldatu egin da hezkuntza-eredua. Gero eta prestakuntza osoagoa eman nahi zaie ikasle guztiei, oinarrizko gaitasun batzuk eskuratuko dituztela sustatu eta bermatzeko; izan ere, hezkuntza-sistemak geroko herritarrak izateko prestatu nahi ditu egungo ikasleak.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lotura zuzena du pertsonen prestakuntza osoarekin, norberaren nortasuna eta komunitatearena eraikitzea baitu xede. Ikasleen ezaugarriek berebiziko eragina dute eskolako ikastaldian eta bititza guztian ikasteko prozesuan. Gaitasun honek gizadiaren partaide izatearen sena garatu nahi du ikasleengan, bi alderdi hauetatik begiratuta: espazioaren ikuspegitik, haren maila guztietan (norberaren herritik hasi eta gizateri osoraino zabalduz); eta giza eskubide unibertsalen babesaren ikuspegitik.

Bititza osoan zehar ikasteko prozesuaren oinarri-baldintzetako bat da ikasleak behar bezala jabetzea gizarte demokratiko batean bizi direla. Gizartearen ezaugarriak ezagutu behar dituzte ikasleek eta gizartearen dibertsitatearen, erronken eta arazoen berri izan; horrez gain, gogoz parte hartu behar dute gizarte-eremuetan eta eremu politikoetan, printzipio etiko sendoetatik abiatuta. Ikasleek elkartasunezko jokabideak izan behar dituzte, beren osasunaren eta prestakuntzaren ardura hartu behar dute, errespetuz elkarreragin behar dute gainerako pertsonekin eta ingurunearekin, eta jarrera kritikoa izan behar dute injustiziekiko, oinarrizko eskubideen urraketekiko eta sistema sozial eta politikoaren inperfekzioekiko.

## **b) Definizioa**

Gizarteari buruzko jakintzak haren ikuspegi guztietatik erabiltzeko trebetasuna da gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna; betiere, gizarte-gertakariak eta -arazoak aldagarriak diren testuingurutan eta espazio-eskalatan interpretatzeko, horiei dagozkien erantzunak landu eta erabakiak hartzeko, eta beste pertsona eta talde batzuekin elkarrengaitzeko, indarreko arauak betez.

Gaitasun honen bidez lortu nahi da ikasleek egungo gizarteen eta sistema demokratikoaren antolamenduari, funtzionamenduari eta eboluzioari buruzko jakintza zehatzak izan ditzaten eta, berariaz, sistema demokratikoaren ezaugarriak eta balioak ezagut ditzaten; halaber, trebetasunak lantzea du helburu, inguruneko arazoak identifika ditzaten, beren bizipenak aztertu eta horiei buruzko gogoetak egin ditzaten, garrantziko informazioa lortu, interpretatu eta balora dezaten, eta, finean, proposamenak lan ditzaten, arduraz eta gero eta autonomia handiagoz bizitzeko. Beste xede batzuk dira gizarte-gertakari buruzko ikuspegi kritikoa lantzea, gizarte-justizia, dibertsitatearekiko errespetua eta antzeko balio demokratiko eta herritarrak garatzea, eta jarrera gogotsuak izatea ingurukoei entzuteko, elkarriketatzeko, laguntzeko, parte hartzeko, enpatia izateko, etab. Ikasleak beren nortasunaz jabetzea eta kontzientzia hori heltzea lortu nahi da, eta horixe bera egitea garaiko gizarteak ageri dituen injustizia, arazo eta desorekekiko.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren eduki-esparrua zehaztean, ikusten da lotura eta elkarrengaitze handiak dituela beste oinarrizko gaitasun batzuekin. Izan ere, gaitasun horren oinarrizko alderdietako batzuk aztertzean, ikusten da bere baitan biltzen direla ezaugarri hauek: informazioa aztertzea, beste pertsona batzuekin elkarriketatea, arazoetarako konponbideak proposatzea, gizarte-gertakarien protagonistak eta interesak identifikatzea eta horien kausak eta ondorioak erlazionatzea. Ildo horretatik, lotura horietako batzuk baino ez ditugu nabarmenduko, aintzat hartuta, orobat, ezaugarri hori bat datorrela oinarrizko gaitasunak sare baten moduan ulertzen dituen ereduarekin. Hala, ikuspegi horren arabera, gaitasun guztiak daude elkarri lotuta eta elkar elikatzen eta laguntzen dira.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren eduki-esparruak bat egiten du zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunaren eduki-esparruaren alderdi hauekin: biek ikertu nahi dituzte zorrotasun zientifikoz gizarte-gertakariak, eta ikuspegi sinplistik gainditzen dituzten planteamenduak egin nahi dituzte. Halaber, ikuspegi ekosistemikoa lantzen dute, gizarteen berezko konplexutasuna ulertzen saiatzeko.

Gaitasun guztiek informazioa erabiltzeko darabilten modua baliatzen du (informazio-iturriak identifikatzea, informazio garrantzitsua hautatzea eta prozesatzea, informazioaren azterketa kritikoa egitea, informazioa berregitea, etab.), baina, batik bat, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunak darabilena.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunarekin lotura estua dute ezaugarri hauek: elkarriketatea, entzutea, proposamenak egin eta iritziak ematea, balorazioak egitea, pertsonen arteko trukeak eta harremanak aintzat hartzea, etab.

Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasunarekin partekatzen ditu eduki hauek: ikuspegi kritikoz baloratzea gero eta anitzagoa den gizartearen adierazpen ugariak, nork bere nortasunaren kontzientzia garatzea, gizarteen eboluzioa ulertzea, inguruneko gertakari konplexuei eta gizakien adierazte- eta sortze-modu anitzei buruzko iritzi autonomoak izatea, eta horietan guztietan parte hartzea eta horiez gozatzea.

Ikasten ikasteko gaitasunaren egiturazko printzipioekin lotzen dira, zuzenean, eduki hauek: norberaren autonomia indartzea, nor bere nortasunaren jabetasuna garatzea eta ikaste-prozesuan norberak duen protagonismoa indartzea, eta jarrera intelektualak eta emozionalak erabiltzea.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunarekin lotzen dira gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren funtsezko alderdi batzuk; esaterako, pertsonen balio eta jarrera hauek garatzea: ardura; autonomia; autokritika; ekin-jardunaren jarraitutasuna; norberak dituen aukeren jabetasuna; arriskuak hartzea, alde onak eta zailtasunak aintzat hartuz, etab.

Eta, azkenik, matematika-gaitasunarekin lotzen dira ezaugarri hauek: kantitatezko eta espaziozko informazioa interpretatzea; logika erabiltzea, arazoak aztertzea; soluzioak bilatzea; pentsamolde abstraktua eratzen joatea; gizarte-gertakarien kantitate-adierazpenei buruzko kalkuluak egitea, etab.

Finean, gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren bidez, ikasleak alfabetatu nahi dira gizarterako eta herritartasunerako jakintza, trebetasun eta balioetan, horiek guztiak eskuratuta, gai izan daitezen informazioa eskuratzeko eta aztertzea, arazoak identifikatzeko, informazioa eta proposamenak interpretatu eta baloratzeko, kausen eta ondorioen arteko harremanak egiteko, entzuteko, elkarrizketatzeko, soluzioak jakinarazi eta proposatzeko, eta jarduera-plan koherenteak eta arduratsuak egiteko, bai bere buruarekiko, bai inguruko jendearekiko eta gizateria osoarekiko.

Eskolak inguruneari erreparatzen dio, eta gizartearen eta herritarren bizitzan parte hartzen du, errealitate hori aldatzen laguntzen du, eta ikasle bakoitza aldaketa-prozesu horren protagonista bilakatzen da, bere eguneko bizipen eta jardueren testuinguruan.

### c) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren dimentsioak

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna **dimentsioak** deituriko multzo handietan dago egituratua. Dimentsio horietako bakoitzak **azpigaitasun** batzuk ditu, eta azpigaitasun horietako bakoitzerako **ebaluazio-irizpideak** zehaztu dira; azken horiek, hain zuzen, ikasleak egitea espero den zeregin edo eragiketa zehatzak dira, gaitasuna lortu duela erakusten dutenak. Adierazleek argi eta garbi erakusten digute ikasleak zer jakin behar duen eta zer dakien, eta zer-nolako jarrera duen bizitza arduratsua, autonomia, solidarioa, parte hartzailea eta, besteak beste, ekintzailea izateko, bai bere buruarekiko, bai gainerako pertsonekin dituen harremanekiko. Halaber, horixe bera adierazten dute lanarekiko, osasunarekiko, balio demokratikoekiko, ingurumenarekiko eta beste alderdi batzuekiko.



Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna hiru dimentsio hauetan banatzen da:

- Gizarte-errealitatea.
- Herritartasuna.
- Bizikidetzeta.

Dimentsio bakoitzaren ezaugarriak adieraziko ditugu, haien eduki eremua zehaztu eta adibideen bidez bistaratzeko.

### **Gizarte-errealitatea**

Historiarekin, giza geografiarekin, ekonomiarekin, soziologiarekin eta beste gizarte-zientzia batzuekin zerikusiak dituen oinarritzko kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak bildu dira dimentsio honetan. Egungo gizartea nola sortu den, nola aldatu den eta egun zer funtzionamendu duen azaltzen dituzte horiek guztiek, eta haren arazo nagusiak eta erronka eta zailtasun batzuk ulertzen laguntzen dute. Jakin behar dugu ea ikasleek denboran zehar gertatutako bilakaera baten ondorio moduan ulertzen duten egungo gizartea, eta gai diren ala ez gizarte-esparruetako dibertsitatea hauteman eta azaltzeko. Aztertu behar da ikaslea gai ote den nolabaiteko egokitasunez azaltzeko gizarteko alderdi ekonomikoak, lan-arlokoak, aisialdikoak, kontsumokoak, gizarte-zerbitzuetakoak eta bestelakoak.

### **Herritartasuna**

Gizarte demokratikoetako eskubide eta betebeharreko lotutako alderdiak biltzen ditu dimentsio honek; besteak beste, eguneroko bizitza, instantzia publikoak, parte hartze aktiboa eta herritartasunaren egikaritza. Ikaslearen gertuko eremuetatik (familia, lagunartea, eskola) abiatzen da dimentsioaren planteamendua, baina testuinguru zabalagoak ere hartzen ditu, globalizazioaren ondorioak azalarazten dituztenak. Ildo horretatik, bizikidetzaren dimentsio honek bereziki erreparatzen dio giza eskubideen eta haurren eskubideen izaera unibertsalari, eskubide horien erabilera-esparru guztietan, eta, halaber, eskubide horien murrizketak edo urraperak pairatzen dituzten pertsonen egoerari erreparatzen die.

### **Bizikidetzeta**

Dimentsio honen ardatza gatazkak aztertzean datza, eta bereziki bultzatzen du haiek ebatzi edo konpontzeko alderdiak. Horrez gain, ikasleek balio-sistema bat eraikitzea eta pertsonen arteko bizikidetzeta antolatzen duten arauak ezagutarazi nahi ditu.

Balio etikoetan oinarritutako nortasun bat garatzea da dimentsio honen xede-indarretako bat, eta, horrez gain, ikasleek nortasun horretan oinarrituta hartzea beren erabakiak; hala, ikasleek beren gain hartuko dute beren ekintzen erantzukizuna, eta irizpide propioak izan eta autonomiaz jokatu dute gainerako pertsonekin harremanak izatean.

Dimentsioaren beste alderdi batzuk dira arauak identifikatzea eta haiek sortzeko prozesuak ulertzea, adostea eta bere egitea, gizarte-komunitatearen ongizatea hobetzeko ekarpenak egin ditzaten.

Jarraian, taula batean adieraziko dira dimentsio bakoitzaren azpigaitasunak:

### **1. DIMENTSIONA: GIZARTE-ERREALITATEA**

1. Errealitate historikoaren bilakaera.
2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
4. Informazioa eta komunikazioa.

### **2. DIMENTSIONA: HERRITARTASUNA**

5. Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
6. Herritartasunaren egikaritzea edo erabilera arduratsua.
7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.

### **3. DIMENTSIONA: BIZIKIDETZA**

8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
9. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.
10. Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.

## **d) Gaitasunaren deskripzioa DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO BIGARREN MAILAN**

Eztabaidagai da Oinarrizko Gaitasunen osagaiak etapaka edo mailaka deskribatu behar diren ala ez. Europako Markoaren proposamenak berak ohartarazten du, oinarrizko gaitasun gehienei dagokienez, oinarrizko garapen mailaren eta maila aurreratuaren arteko bereizketa egitea, agian, ez dela hain adierazgarria. **Gainera, arriskua dago deskribapen hori curriculum paralelotzat hartzeko.**

Baina Derrigorrezko Hezkuntzako etapetan zehar garatu beharreko gaitasunen deskribapen sekuentziatuari dagokionez, zuhurtziaz jokatzeko aholku hori egin den arren, diagnostiko-ebaluazioari lotutako proben erreferentziazko tresnatzat jo da. Hori dela-eta, aurkezten den deskripzioa irizpide berberen arabera gauzatu da oinarrizko gaitasun guztietarako.

### **1. DIMENTSIOA: GIZARTE-ERREALITATEA**

#### **2. Errealitate historikoaren bilakaera**

##### **Adierazleak:**

- a. Gertakari eta prozesu historiko nabarmenenak ezagutzen, interpretatzen eta beren testuinguruarekin lotzen ditu, historiako gizarteak sailkatzen ditu eta aldaketako eta iraupeneko prozesuak identifikatzen ditu.
- b. Gertakari historikoak denbora-lerrotan kokatzen ditu (ardatzak, frisoak, etab.), ohiko denbora-erreferentziak baliatuz (Kristo aurretik eta ondoren, garai historikoak, etab.), eta horien arteko loturak ezartzen ditu (sozialak, ekonomikoak, teknologikoak, politiko-militarrak, artistikoak, etab.).
- c. Arrazoi edo kausa anitzak adierazten ditu historiako gertakariak azaltzeko, horien ondorioetako batzuk deskribatzen ditu eta iraganeko gertakariak baliatzen ditu egungo gizarteko egoerak aztertzeko.
- d. Historia interpretatzeko datu objektiboak balioesten ditu, eta interpretazio mitiko edo deterministetatik bereizten ditu.
- e. Balioetsi egiten du, emakumeek eta gizonek, gertakari historikoen protagonista diren aldetik, gizateriaren aurrerabideari egin dioten ekarpena eta pertsonen, taldeen eta herrien egin duten lana.

#### **3. Gizartearen funtzionamenduaren eta haren lorpen eta erronken ulermena.**

##### **Adierazleak:**

- a. Egungo gizartearen ezaugarri sozialak eta kulturalak deskribatzen ditu, eta haren dibertsitatea, aniztasuna eta denboran izan duen bilakaera nabarmentzen ditu.
- b. Eguneroko bizitzan eta Euskadiko, Espainiako eta Europako gizarteetan aztertzen ditu gizarte-ezaugarrien, hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, eta balioetsi egiten du haien aberastasuna eta euskal kulturak eta beste kultura batzuek gizateriaren ondareari egin dioten ekarpena.



- c. Izaera eta helburu anitzak dituzten erakundeak daudela ikusten du (kultura-elkarteak, sindikatuak, gobernuz kanpoko erakundeak, alderdi politikoak, erlijio-taldeak...).
- d. Egungo gizartearen zenbait arazo eta erronka ikusten ditu (populazioa, etxebizitza, indarkeria, lana, xenofobia, gizarte-bazterketa, etab.), horien kausak eta ondorioak lotzen ditu, eta sentikor azaltzen da gizarteko egoera bidegabe edo diskriminatzaileen aurrean.
- e. Gizartearen aldaketan, hobekuntzen eta aurrerabidearen aldeko jarrera irekia du, eta gizarteak izango duen bilakaerari buruzko iragarpenak egiten ditu, bere hipotesiak datuetan oinarrituz.
- f. Ongizatearen gizarteko zenbait elementu identifikatzen ditu eta gizarte-aurrerapenaren adierazpide moduan balioesten.

#### **4. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.**

##### **Adierazleak:**

- a. Pertsonen oinarrizko beharrianak eta horiek asetzeko baliabideak eta bitartekoak ezagutzen ditu, eta eragile eta erakunde ekonomikoen funtzionamendua azaltzen du.
- b. Jarduera ekonomiko nagusien antolamenduaren eta egituraren oinarrizko zenbait eredu aztertzen ditu (tamainaren, sektorearen eta beste erreferentzia batzuen arabera), bere inguruko lanbide ohikoenen ezaugarriak ezagutzen ditu, eta Euskal Herriko eta Espainiako jarduera ekonomiko nagusiak identifikatzen ditu, jarduera tradizionalak eta ekonomia berriarekin lotutako jarduerak bereiziz.
- c. Jakin-mina azaltzen du langile guztiek dituzten oinarrizko eskubide eta betebeharrak, laneko segurtasunarekiko eta enpresaburuen ardurarekiko; etengabeko prestakuntzaren, konpromisoaren eta norberaren poztasunaren garrantzia balioesten du; eta laneko esplotazio-, diskriminazio- edo bidegabekeria-mota oro arbuiatzen du.
- d. Kontsumo- eta produkzio-unitate moduan aztertzen du familia, eta ikusten du zer-nolako eragina duten familian bere inguruko gertakari eta arazo ekonomikoek (inflazioa, langabezia, bizitzaren kostua, produktu eta zerbitzuen kalitatea, etab.).
- e. Kontsumoak pertsonen, gizartearen eta ingurumenaren sortzen dizkien kalteak eta kontsumoaren esparruan dauden desberdintasun-egoerek dakartzaten galerez jabetzen da, publizitatearen zereginak eta helburuak aztertzen ditu, eta badaki zer onura dakartzaten kontsumo arduratsuak, bidezko merkataritzak eta garapen iraunkor baten bidea jorratzeak.

#### **5. Informazioa eta komunikazioa.**

##### **Adierazleak:**

- a. Gizarteko gertakariak eta arazoak ezagutzeko eta aztertzeko behar den informazio garrantzitsua hautatzen du askotariko informazio-iturrietatik, bai iturri jarraituetatik (testu idatziak), bai iturri ez-jarraituetatik (mapak, grafikoak, irudiak, etab.).
- b. Gizarte-komunikazioko zenbait komunikabide identifikatzen ditu (prentsa, irratia, telebista, Internet, etab.) eta horien egitekoak deskribatzen.
- c. Informazioa, iritzia eta propaganda (politikoa, publizitatea, etab.) bereizten ditu, eta arbuiatu egiten du informazioaren erabilera engainagarria eta

manipulatzaila, eta arbuiatu egiten du hizkuntza eta publizitate-irudi sexistak edo iraingarriak erabiltzea.

- d. Deskribapenezko eta azalpenezko testu jarraitu eta ez-jarraitu errazak idazten ditu, eta horietan gertakari eta prozesu, historiko, sozial, ekonomiko eta bestelakoei buruzko datuak, iritziak, emaitzak, arrazoibideak, ondorioak edo hipotesiak plazaratzen ditu.

## **2. DIMENTSIONA: HERRITARTASUNA**

### **6. Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.**

#### **Adierazleak:**

- a. Erakunde nagusiak ezagutzen ditu, udaletik hasi eta Europar Batasunerainokoak, eta haien egitekoak eta beren lurraldeetan duten antolamendu politikoa eta administratiboa identifikatzen ditu. Bere eguneroko bizitzako jardun-esparru konkretuetan parte hartzen du.
- b. Gizarte demokratikoekiko interesa azaltzen du eta haien ezaugarriak adierazten ditu: askatasuna, berdintasuna, pertsona guztien eskubideekiko errespetua, herritarren betebeharrak, duintasuna, ardura, justizia, elkartasuna eta diskriminaziorik eza.
- c. Ordezkaritza politikoen ereduak aztertzen du, eta, berariaz, eredu horrek biltzen dituen aukera ideologiko anitzak eta alderdi politikoen ordezkatutako interesak.

### **7. Herritartasunaren egikaritzea edo erabilera arduratsua.**

#### **Adierazleak:**

- a. Herri- eta gizarte-partaidetzako modu zuzenak (batzarrak, bilerak, etab.) eta zeharkakoak (hauteskundeak, etab.) ezagutzen ditu.
- b. Gizarte-partaidetza bideratzen duten elkarten (kultura-elkarteak, aisialdikoak, boluntarioen elkarteak, sindikatuak, alderdi politikoen, etab.) helburuak, egitura eta ezaugarriak ezagutzen ditu.
- c. Partaidetza politikoa balioesten du, herritarren interesak bideratzeko modu baketsua den aldetik, jarrera kritikoa ageri du parte hartzearekin hotz ageri direnekin, eta indarkeriazko eta demokraziaren aurkako jokabideak arbuiatzen ditu.
- d. Badaki zer garrantzitsua den herritarrek informazio independentea eta anitza eskuratzeko aukera izatea, herritarrei dagozkien gaiei buruzko iritzi propioa osatzeko aukera ematen duten aldetik.

### **8. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.**

#### **Adierazleak:**

- a. Giza eskubide unibertsalak eta hauren eskubideak ezagutzen ditu eta horiek balio eta printzipio demokratikoekin lotzen. Bere inguruko egoerak edo komunikabideetan azaldutakoak aztertzean, arbuiatu egiten du eskubide horiek ez betetzea edo urratzea.

- b. Bera kide den taldeetan gertatzen diren diskriminazioak identifikatzen ditu, diskriminazio horiek pairatzen dituztenekiko interesa azaltzen du eta egoera horiek zuzentzeko bideak erabiltzen eta neurriak proposatzen ditu.
- c. Herritartasuna familian, ikastetxean, kultura- eta aisialdi-esparruetan eta beste esparru batzuetan egikaritzeak dakartzan eskubideak ezagutzen ditu, eta arduraz jokatzeko du.
- d. Hainbat balio balioesten ditu (bakezaletasuna eta indarkeriarik eza, giza eskubideak, justizia eta ekitatea, ingurumenaren babesa eta iraunkortasuna, kultura minorizatuen babesa, etab.), eta balio horiekiko konpromisoa adierazten duten elkarte, talde eta organismoak ezagutzen ditu.
- e. Dibertsitatea balioesten du, kultura-aberastasuna dakarren aldetik, mundu-mailako herritartasunarekiko konpromisoa hartzen du eta bere ekintzek mundu osoan duten eraginaz jabetzen da.

### **3. DIMENTSIOA: BIZIKIDETZA**

#### **9. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.**

##### **Adierazleak:**

- a. Jarrera eraikitzailea azaltzen du gatazken eta horiek konpontzeko prozesuen aurrean, beste pertsonaren lekuan jartzen da eta elkarrizketa eta negoziazioa erabiltzen ditu elkar ulertzeko tresna gisa.
- b. Familia-gatazkak, pertsonenak, tokian tokikoak, nazionalak eta nazioartekoak aztertzen ditu, gatazka horien kausak, ondorioak, interesak, jarrerak eta protagonistak identifikatzen ditu, eta aintzat hartzen ditu pentsamenduen, sentimenduen eta ekintzen dimentsioak.
- c. Konponbideak proposatzen ditu gatazkentzat, horietan parte hartzen duten pertsonen (eragile, biktima eta ikusleen) eskubideen ikuspegitik eta haien beharrezan asetzeko premiaz ohartuta.
- d. Pertsonen arteko harremanetan gizarte-trebetasunak eta emozioak kontrolatzeko jarrerak identifikatzen eta garatzen ditu.
- e. Desadostasunak eta jarrera kritikoak balioesten ditu, gizarte demokratikoetako bizikidetzaren bidezko oinarriak diren aldetik.
- f. Askotariko gatazkak (etnikoak, sozialak, militarrik, ekonomikoak, ingurumenekoak, etab.) eta arazoak (tokikoak edo mundukoak) konpontzen diharduten erakundeen jardura aztertzen du.

#### **10. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.**

##### **Adierazleak:**

- a. Bere jarrera etikoa eta jokabideak bat datoz bere pentsamenduekin, emozioekin eta denboran zehar eraikitzen joan den balio demokratikoen sistema pertsonalarekin.
- b. Irizpide propioz jarduten du, erabakiak hartzen ditu gizarte-egoeretan eta irizpide kritikoz baloratzen ditu beste erlijio, etnia, sexu, kultura edo ezaugarriko pertsonakiko aurreiritziak eta diskriminazio-jarduerak.
- c. Bere nortasunaren ezaugarriak ezagutzen ditu.
- d. Balioetsi egiten du zer-nolako egitekoa duten diferentzia kulturalak eta pertsonalak bere nortasuna eta balio-sistema eraikitzeko.

## **11. Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.**

### **Adierazleak:**

- a. Elkarbitza eta bizikidetzaz arazoak konpontzeko gizarte-arauak onartzen eta erabiltzen ditu.
- b. Arauak urratzen diren egoerak identifikatzen eta bere gain hartzen ditu, eta urratze horien ondorioak aurreikusten ditu.
- c. Gogoz parte hartzen du bizikidetzaz arauak adostasunez sortzeko prozesuetan eta bete egiten ditu guztien artean adostutako konpromisoak.
- d. Ikastetxeko kide sentitzen da, eskola-jardueretan inplikatzeko da eta haiekin gozatzeko du.

**a) Irakasgaien ekarpenak Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna garatzeko:**

	<b>MATERIAS</b>	<b>EKARPENAK</b>
<b>GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA</b>	<b>EUSKARA ETA LITERATURA,</b> <b>GAZTELANIA ETA LITERATURA,</b> <b>ATZERIKO HIZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Hizkuntza funtsezko elementua da sozializazio-prozesuetan: harreman pertsonalak egitea, helburu askotariko gizarte-jardueretan parte hartzea, ikasgelan parte hartzea...</li> <li>– Hizkuntza-katalogoa zabaltzen lagundu behar dute, hainbat gizarte-eremutan arrakastaz jokatu ahal izan dezaten: esanahia negoziatzeko, askotariko iritziak hurbiltzeko eta gatazkak konpontzeko...</li> <li>– Autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialekiko errespetua eta euskara normalizatzeko jarrera adierazteari esker, integrazio hobea eta gizarte-kohesio handiagoa lortzea.</li> <li>– Nazioarteko komunikazioari mesede egiten dio; kanpotik informazioa jasotzeko bide bat da, bai eta pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko eta elkar ulertzeko modua ere.</li> <li>– Hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera positiboa hartzea.</li> <li>– Hizkuntzaren erabilera diskriminatzailerak errotik mozteko helburua hartzea, hizkuntzak munduko aurreiritziak eta irudi estereotipatuak transmititzen eta zigortzen dituen moduak aztertzea.</li> </ul>
	<b>MATEMATIKA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Gurea ez den beste ikuspegi bat onartzen ikastea; batik bat, problemak ebazteko estrategia pertsonalak erabiltzerakoan.</li> </ul>
	<b>GIZARTE ZIENTZIAK,</b> <b>GEOGRAFIA ETA HISTORIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Errealitate sozial, egungo eta historikoa ulertzea.</li> <li>– Gizarteen bilakaerak eta antolaketak, eta haien lorpenak eta arazoak ikastea.</li> <li>– Egungo gizartearen ezaugarriak, aniztasuna eta gure gizartearen elementu eta interes komunak ulertzea.</li> <li>– Integratze-prozesua kritikoa eta eraikitzailea, euskal gizarte askotarikoan eta egungo Europan integratzea.</li> <li>– Arazoei modu baketsuan eta demokratikoki aurre egitea.</li> <li>– Trebetasun sozialak barneratzea.</li> <li>– Beste baten lekuan, lepoan, jartzea; enpatia.</li> <li>– Arazoei aurre egiteko elkarrizketa eta balioespena nahitaezko bideak direla ulertzea.</li> <li>– Beren iritziekin bat ez datozen bestelako iritziak dituzten pertsonak errespetatzea.</li> <li>– Beste kulturek egindako ekarpenei balioa ematea.</li> </ul>

	<b>GORPUTZ HEZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera fisikoak bitarteko eraginkorrak dira integrazioa errazteko eta elkarrenganako errespetua sustatzeko.</li> <li>- Jarduera fisikoek lankidetzak, berdintasuna eta talde-lana bultzatzen laguntzea.</li> <li>- Taldeko kirol-jarduerak egiteko eta antolatzeak, ezinbestekoa da proiektu bateratu bat egitea.</li> <li>- Parte-hartzaileek dituzten desberdintasunak eta zailtasunak onartzea.</li> <li>- Taldeko kirol-jardueretan, parte-hartzaile bakoitzak bere ardura onartzea.</li> <li>- Kirol-jarduerak zuzentzen dituzten arauak eta erregelamenduak betetzea.</li> <li>- Araututa dauden jolas eta kirol lehiakorrek aukera ematen dute gatazkak eta portaerak lantzeko.</li> </ul>
<b>GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA</b>	<b>NATURAREN ZIENTZIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduerak elkarlanean egitean, ikasleek besteen iritziekin egiazta eta aberastu ditzakete euren iritzia eta euren eta besteen ekarpenak balioesten.</li> <li>- Elkarrekin bizitzen eta inor ez baztertzeko eredu kulturarengatik, sexuarengatik edo beste edozein arrazorengatik ikastea.</li> <li>- Gure gizartean sortzen diren tokiko arazoetako eta arazo orokorretako erabakietan arduraz parte hartzea.</li> </ul>
	<b>HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonen nortasunari eta bizikidetzak positiboak eta autoestimua lantzeko beste pertsona batzuekin ezarritako harremanei garrantzi handia ematea.</li> <li>- Berdintasuneko genero-harremanen alde egitea.</li> <li>- Parte-hartzearen alde egitea.</li> <li>- Aniztasuna balioztatzea.</li> <li>- Giza Eskubideak azpimarratzea.</li> <li>- Herritar-gaitasunarekin duen konpromisoa erakustea.</li> </ul>
	<b>PLASTIKAREN ETA IKUSIZKOEN HEZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte-gertaerak jatorriko kulturatik edo ekoizpen-testuinguruetatik kanpo ez ulertzea: balioak, ekonomia, ideologia, teknika, erlijioa, zientzia...</li> <li>- Arte eta ikusizkoen kulturaren produktuak banako eta taldeko nortasunak osatzen laguntzen dutela ulertzea.</li> <li>- Artearen gizarte-erabilerak ulertzea.</li> <li>- Ekoizpena ere izan daiteke taldeko lanaren eremua, errespetua, bizikidetzak, tolerantzia eta elkartzasuna balioak landuko diren eremua.</li> </ul>

	<b>MUSIKA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Musika tresna baliagarria da bakarka nahiz taldeka komunikatzeko eta adierazteko.</li> <li>- Musika lagungarria da zenbait erlaziori buruz ikasteko eta pentsatzeko: banakoaren eta taldearen arteko erlazioa; bi elementu horien aldiberekotasunaren eta erritmoa lantzeko ematen dituzten aukeren artekoa; eta talde-lanaren eta koordinazio formen artekoa.</li> <li>- Musika-esperientzia kolektiboetan parte hartzeak besteekin harremanak izateko trebetasunak eskuratzen laguntzen du, nork bere ardura hartuta taldearen lanaren arrakasta lortze aldera.</li> </ul>
<b>GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA</b>	<b>TEKNOLOGIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Teknologiaren alorrak enfasi berezia jartzen du talde-lanean, problema praktikoak ebazteko; eta horren bitartez, ikasleek parte hartzen dute, elkarri laguntzen diote, konpromisoa hartzen dute eta elkarrekintzatik sortutako gatazkei aurre egiten diete, lortu nahi duten amaiera bateratura iristeko presak bultzatuta.</li> <li>- Gizarte-antolaketa eta funtzionamendua lantzen dira, garapen teknologikoaren eta historian zehar egondako gizarte- eta ekonomia-ereduen arteko korrelazioa egiaztatzean.</li> </ul>
	<b>LATINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erromatarren erakundeak eta bizimoduak erreferente historiko dira Europa askotariko baten eremuko eta ingurunezko gizarte-antolaketarako, bizitza publikoan herritarrek duten parte-hartzerako eta gizabanakoen zein taldeen eskubide eta betebeharrak mugatzeko.</li> </ul>
	<b>INFORMATIKA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beharrezko ezagutzak eta trebetasunak ematea informazioa eskuratzeko eta behar bezala erabiltzeko maila pertsonalean eta sozialean.</li> <li>- IKTak erabilzea ideiak eta iritziak trukatzeko proiektuetan; eta elkarteren eta talderen zerbitzuak eta kolaborazioak eskura jartzeko.</li> </ul>
	<b>KULTURA KLASIKOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antzinako greziarren eta erromatarren erakundeak eta bizimoduak erreferente historikoak dira gizarte-antolaketarako, herritarrek bizitza publikoan duten partaidetzarako eta gizabanakoen eta taldeen eskubide eta betebeharren mugaketarako.</li> </ul>
	<b>ERLIJIOEN HISTORIA ETA KULTURA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizi dugun gizarte errealitatearen ulermena eta bizikidetzaren demokratikoa erraztea, oinarrizko elementutzat sinismen-aniztasuna onartzen baitu.</li> <li>- Funtsezko gizarte-trebetasunak garatzea; adibidez, norberaren ideiak adieraztea, harremanak berdintasunez egiten jakitea, elkarriketa-komunikazioa, etab.</li> </ul>

## HAUSNARTZEKO

*“Lehengo batean, irakasle gelan klaustroko norbaitek esan zuen oinarrizko gaitasunen gaia betiko kontua dela, izena baino ez dela aldatu; dena asmatuta dagoela jada eta ez dagoela ezer berririk ”.*

- Zer esango zenioke? Zer nolako argudioak aipatuko zenituzkete oinarrizko gaitasunek hezkuntza planteamenduetan aldaketa dakartela konbentzitzeko?
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren dimentsioak aztertu. Zeintzuk lantzen dituzue ikasgelan? Zein dira hainbestetan lantzen ez dituzuenak edo inoiz lantzen ez dituzuenak? Zergatik? Aipatu hiru arrazoi.
- ‘Bizikidetz’ dimentsioa aztertu. Zer garrantzi ematen diozue eskola saioetan berdinen arteko interakzioari? Normalean, astean zehar eskola saioetako zenbat denboratan talde lana egiteko ematen duzue?
- ‘Gizarte errealitatea’ dimentsioaren azpi-gaitasunak aztertu. Zeintzuk lantzen dituzue gelan? Aipatu normalean lantzen ez dituzuen bi. Zer nolako jarduerak proposatuko zenituzkete azpi-gaitasun horiek zuen arloan lantzeko?



## 2. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENERAKO

### a) Orientabide orokorrak

***“Esadazu, eta ahaztu egingo dut; erakutsidazu, eta gogoratu egingo dut; baina utzidazu parte hartzen, eta ikasi egingo dut”***

(Txinako esaera zaharra)

Oinarrizko gaitasunak Curriculum berrian txertatzeak eragin zuzena du hezkuntzaren praktikan; izan ere, metodologia da gaitasunak garatzeko eragile nagusia.

Gaitasunak irakasgaien zein arloen irakaskuntza estankotik haratago doaz eta beraien garapena irakasle guztien ardura da. Horrenbestez, denen artean adostutako erabaki metodologikoak hartu behar dira. Oro har, **gaitasunen inguruko lanak irakaskuntza transmisiboaren eta ikaskuntza aktiboaren arteko bereizketa nabarmentzen du.**

Ikas-irakas prozesuak lantzeko eta ulertzeko bi modu horiek aspaldi daude hezkuntza munduan. Baina ikaskuntza aktiboari lotutako metodoak aurreko mendearen hasieran garatzen hasi baziren ere (Dewey, Freinet...), **gaur egungo hezkuntzaren praktika, hein handi batean, ezagutzen transmisioan dago oinarrituta.**

Hala ere, gaitasun kontzeptuak berak ematen du berori garatzeko zein den biderik egokiena antzemateko giltza. Gaitasuna garatzea bizitzarako ikaskuntza gauzatzea da, eskolan aurreikusi ezin diren egoerei erantzuteko eta egoera jakin bat ebatztea erabilitako ezagutzak (prozedurazkoak, jarrerazkoak eta kontzeptuzkoak) beste egoera edo arazo ezberdin batzuetara transferitzeko. Beraz, badirudi argi dagoela **gaitasunen garapenak ikaskuntza aktiboa behar duela, ikasleak prestatuko dituen izaten jakin dezaten, egiten jakin dezaten eta ezagutza aplikatzen jakin dezaten.**

Ikaskuntza aktiboa ez da gauzatzen metodologia bakar baten erabileraren bidez, posible da eta hala beharko litzateke ikasgelan jarduteko modu ezberdin eta askotarikoak erabili eta garatzea. Baina, esan behar da, badirela oinarrizko gaitasunen garapena oztokatzen duten jardunbide batzuk eta beste batzuk, aldiz, garapen horri laguntzen diotenak.

Curriculum ezartzen duen 175/2007 Dekretuak hezkuntzaren praktika bideratu behar duten printzipio pedagogikoak zehazten ditu<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> 175/2007 Dekretua. 10.artikulua. HAEE, 2007/11/13

(...) hezkuntza proiektuan jasotako printzipioez gain, honako pedagogia-printzipio hauek hartuko dituzte kontuan ikastetxeek:

**1. – Hezkuntza-gaitasun orokorrak jaso behar ditu irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak, eta kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak biltzen dituzten oinarrizko gaitasunak lortzea izan behar du prozesu horren xedea.**

**2. – Lana proiektu osoen bidez eginez gero, erraztu egiten da oinarrizko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea eta jakintza-arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna.**

**3. – Ikastetxe-eredua hezkuntza-komunitatera eta, oro har, gizartera irekitzen ari dela, beharrezkoa da ebaluazioaren parte hartzea handitzea.**

**4. – (...)**

Pedagogia-printzipio horiek era ezberdinetan gauzatu daitezke ikasgelako praktikan: atazak, ikasleen interesguneak, proiektuak... Haurtako edozein eredu didaktikok eragina izango du metodologia aldagaietan, hala nola, denboraren kudeaketan, ikastaldearen antolaketan, material didaktikoetan, ebaluazioan, sortuko diren interakzioetan ...

Beraz, metodologia bakarrari buruz barik, ikaskuntza aktiboaren baitan dauden printzipio eta estrategia metodologikoei buruz hitz egin behar da. Ondoko Dekalogoak ikaskuntza aktiboari laguntzeko, eta, horrenbestez, oinarrizko gaitasunen garapena bultzatzeko, irakasleek kontuan hartu behar dituzten zenbait estrategia metodologiko biltzen ditu:

- **Ikasgelan giro egokia sortzea:** lan egiteko giro afektibo aproposa, ikaskuntza sustatzeko espektatiba positiboak...
- **Parte-hartzeko estrategiak sorraraztea:** zalantzak adieraztea, ikaskuntza funtzionalak bultzatzea...
- **Ikaskuntzaren helburua lortzeko motibazioa bultzatzea:** helburuak jakinaraztea, lana gauzatzeko negoziazio jarduerak proposatzea, ikasleei hitza ematea...
- **Ikaskuntza autonomoari laguntzea:** transmisio hutsezko ikaskuntza mugatzea, irakasle-ikasleen ohiko eginkizunak aldatzea...
- **IKTak era esanguratsuan integratzea:** IKTen esparruko baliabide didaktikoak erabiltzea: wq-ak, altxorraren bila, blogak...; IKTak ikasteko zein gelakideen artean komunikatzeko erabiltzea...
- **Askotariko informazio iturriak erabiltzea era askotako euskarrietan:** informazio hautaketaren prozesua gidatzea; informazio iturritzat testu liburua soilik ez erabiltzea...
- **Ikasitakoa ahoz zein idatziz komunikatzea:** ikasitakoa jakinaraztea, azaltzea; berdinen arteko interakzioa bultzatzea ezagutza eraikitzeke...
- **Ebaluazio hezitzailea sustatzea:** auto-erregulaziorako egoerak sortzea, ebaluaziorako irizpideak jakinaraztea, auto-ebaluazioa zein koebaluazioa bultzatzea...
- **Toki eta denbora antolaketa desberdinak faboratzea:** ikasgelako espazio antolaketa aldatzea, eskola saioen iraupena malgutzea...
- **Ikasitakoaren funtzionaltasuna eskola esparrutik kanpo bultzatzea:** irakasgaien zein arloen arteko erlazioak sustatzea, metodologia globalak erabiltzea...

**Laburbilduz, IKASKUNTZA AKTIBOA BULTZATZEA**

Halaber, ikasleek ondokoak behar dituzte:

- Bizitza errealari lotutako ataza esanguratsuetan inplikatu.
- Trebetasunak erabili egiten ikasteko eta ezagutzak aplikatzeko.
- Aukerak izan deskubritzeko, aurkitzeko, aztertzeko, interpretatzeko, eraikitzeko eta esperimentatzeko.
- Feed-back-a lortu, ikaste-prozesuaren barruan egiten dutena egoera jakinetara eta momentuko beharrianetara egokitzeko.
- Egiten dutenaz hitz egin eta ikasitakoa jakinarazteko aukera izan.
- Ikasgelan gertatzen denaz eta ikasten dutenaz gogoeta egin
- Ikasten dutena aurretiaz ikasitakoarekin artikulatu, beren jarduteko eskemak aldatzeko.

Goian aipatutako zenbait estrategia metodologiko zein oinarriko gaitasunen garapenari lagun diezaioketen ikasgelako zenbait praktika biltzen ditu ondoko grafiko honek:



## **b) Orientabide zehatzak Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna garatzeko**

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzeko, ezinbestekoak dira:

- **espazio- eta denbora-nozioak** eskuratzea,
- konturatzea, giza eta gizarte-egintzak ulertzeko, aintzat hartu behar dela haien **funtsean arrazoi ugari eta askotarikoak** daudela, eta
- mota askotako **informazioa jaso** eta **prozesatzea**.

Hori guztia, jakina, ezin da denbora gutxian lortu; kontrara, **eskolatze-aldi osoan etengabe landu** beharreko kontuak dira.

Ikaslearen **inguru hurbila aztertu** behar da, eta beti abiapuntutzat hartu urrunagoko errealitateak –ez, baina, arrotzak– ulertzen joan dadin. Gaurkotasan handiko arazoak tratatu behar dira, unean unekoak, denen ahotan daudenak, gehienbat ikasleen bizimoduari nola edo hala lotuak.

Antoni Santistebanek dioen bezala<sup>2</sup>, orain arteko irakasmehodoak aldatzea dakar Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lantzeak, eta beste hauek ekartzea gelara: gizarte-arazoak proposatzea eta interpretatzea; gizartea ulertzea, haren gainean eragiteko; adimen kritiko eta sortzailea sustatzea; gizartearen errealitatearen konplexutasuna pentsa ditzakegun galderen bidez gainditzea; komunikazio-giroa sustatzea, ikertzeko eta elkarlanean jarduteko estrategietatik abiatuta; espazioa eta denbora erlazionatzea eta interpretatzea; eta etorkizuna –ulertzen– ikastea.

Beraz, irakaskuntzan aldaketa esanguratsuak eragiteko, ez da nahikoa gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna testuinguruan ondo kokatutako ezaupide funtzional batzuekin erlazionatzea: aldiz, behar-beharrezkoa da gelan gizarte-arazoak aztertzeko proposatzea eta ezagutza historiko, geografiko eta sozialekin lotzea.

**Kasuan kasuko gizarte-arazo horiek ulertzeko ahalmena: horra zer lortu beharko genukeen gaitasuna garatzean, eta, beraz, halaxe interpretatu behar dugu gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.**

Gizarte-arazook gelara sartu behar dira, eta ikergai nagusitzat hartu behar dira gizartea aztertzeko orduan (harreman pertsonalekin, balio sozialekin eta gizon-emakumeen esperientziekin dute zerikusia eguneroko bizitzan aurre egin behar izaten dizkiegun arazo gehienek). Arazook ikasgelara sartzen baditugu, ezinbestean esleitu behar diogu rol berri bat irakasleari, zeregin hauek bete beharko baitu:

- Gizarte-arazoa proposatuko du, edo hura definitzen lagunduko du.
- Informazioa eskainiko du, eta arazook gainditzeko baldintzak sortuko ditu.
- Arrazoibideak eskainiko ditu.
- Gogoeta eta eztabaida sustatuko ditu.
- Norberaren ideiak (berr-)aztertzea bultzatuko du.

---

<sup>2</sup> SANTISTEBAN, A.: “Cómo trabajar en la clase la competencia social y ciudadana”, in *Aula de Innovación Educativa*, 187. zk., Graó, Bartzelona, 2009.

Zer gertatzen den beren munduan: horixe galdetu behar diote beren buruari, etengabe, ikasleek, eta horretarako trebetasunak eskaini behar dizkiegu. Galderek pentsarazi egiten digute, beste batzuetara eramaten gaituzte, eta, hala, pertsona argiak, zuhurrik eta arrazoidunak bilakatzen gara.

*Zeintzuk dira gizarte-zientziei ekiteko estrategia metodologiko onenak?*

Gaitasun honetan, **testuinguru bai formaletan bai informaletan** garatutako ikaskuntzek dute eragina.

**Ardatz gisa ikaslea** –eta ez irakaslea– **duen paradigma metodologikoaz** ari gara; hortaz, ikasleek hobeto balioesten dituzten estrategiak lehenetsi behar dira, erabilgarritzat jotzen dituztenak. Hala, komunikazioa, partaidetza eta norberaren ekimena sustatzen duten estrategiak elkartuko dira. Horrek esan nahi du izango duela ikasleak ideiak adierazteko aukera, har dezakeela esku ikasgelaren dinamika aldatzeko, eta egin behar dituen jarduerak mota askotakoak direla.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna besteekin eta gizarte-ingurunearekin komunikatzean taxutzen da. Ikaslearen jardueran oinarritzen direnez, **estrategia interaktiboak** dira egokienak hori guztia lortzeko, ikasleak berriro landuko baititu ezagutzak ikaskideekin eta irakaslearekin jardutean. Hala, gaitasun honetan, zenbait estrategia lehenesten dira; besteak beste:

- Kasuen analisia
- Simulazioak
- Arazoei aurre egitea
- Arazoak ulertzera bideratutako hezkuntza
- Proiektuak (hipotesiak egiaztatzeko ikerketak)

Gizarte-arazoei erantzun egokia emateko, ezinbestekoa da espazio- eta denbora-koordinatuak ulertzea. Espazio geografikoari *galdetzen* diogunean, denbora historikoa eraikitzen ari gara (Pagés eta Santisteban, 2008). Hala, funtsezko tresna da iturriekin lan egitea gelan.

Azkenik, etorkizuna ikastea ere bada gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren parte. Eskolak, hala, hainbat etorkizun mota esploratzen irakatsi behar du, maila pertsonalean, ingurune hurbilekoan eta bai globalean ere. Frogatuta dago ikasleak gai direla beren etorkizunari eta komunitatearen etorkizunari buruz hitz egiteko.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunarekin lan egitean, lortu behar dugu ikasleek ulertzea eta eragitea, arazoei irtenbideak emateko gai izatea, etorkizuna irudikatzea... Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, azken batean, herritartasuna kontzienteki praktikatzea da, konpromisoarekin eta erantzukizunarekin, baita ikasgelan ere. Gaitasun hau gauzatzean ikasten da herritarra izaten.

## HAUSNARTZEKO

*“Lehengo batean irakasle gelan klaustroko norbaitek esan zuen ikasleek gero eta maila kaskarragoa dutela eta ikasturte honetan, esaterako, ezin izango dituela gai guztiak eman”*

- Iritzi horrek irakaskuntzaren zein kontzepzio islatzen du? Uste duzue irakaskuntzaren ikuskera hori bat datorrela gaitasunen garapenean oinarrituta egon behar duen irakaskuntzarekin?
- Zein neurritaraino zaudete ados ikaskuntza aktiboaren planteamenduarekin? Ikaskuntza transmititu egiten da ala eraiki egiten da? Irakaslearen eginkizuna, informazio iturri bakar gisa, baliagarria da XXI. mendean?
- Atal honetako grafikoari erreparatu. Bertan ageri diren estrategia eta jardunbideen artean zein dira ohikoak zuen ikastetxean? Hauta itzazue horietako hiru, zuen ustez adierazgarrienak, eta esan nola gauzatu daitezkeen zuen ikastetxean.
- Dekalogoan aipatutako estrategia metodologikoetatik zein dira, zuen ustez, inportanteenak? Hautatu hiru eta ikasgelara eramateko modu zehatzak planteatu.
- Zuen eskola saioetan banakako lana ala taldeko lana da nagusi? Ikasleen arteko eztabaidak eta debateak bultzatzen dituzue? Denbora galtze hutsa dela uste duzue?
- Pentsatu hiru bide ezberdin, denbora eta tokia antolatzeko erari dagokionez, zuen ikastetxea eraginkorragoa izan dadin oinarrizko gaitasunen garapenari laguntzeko.

### 3. GAITASUNEN INGURUKO EBALUAZIORAKO ORIENTABIDEAK

#### a) Orientabide orokorrak

Ebaluazioak ikaskuntzaren motorra izan behar du eta ikas-irakaskuntza prozesuekin bat egin; izan ere, ikasteak berekin ditu arazoak antzematea, zailtasunak eta oztopoak gainditzea, akatsez eta huts egiteez konturatzea eta zuzentzea. Ebaluazioaz hausnartzen denean, badira erantzun behar ditugun oinarrizko galderak. Baina, egun, galdera horiek gaitasunen inguruko marko berrian, beste ikuspegi eta zentzu bat hartzen dute. Ohiko galderak, beraz, paradigma berri baten baitan ageri dira:

- *Zertarako ebaluatu?*
- *Noiz ebaluatu?*
- *Nork ebaluatu?*
- *Zer ebaluatu?*
- *Nola ebaluatu?*

#### *Zertarako ebaluatu?*

Galdera honek lerro jarrai bereko muturretan dauden bi erantzunen aurrean jartzen gaitu, ebaluazioa ulertzeko bi ikuspegi ezberdin islatzen dituzten bi erantzunen aurrean, alegia:

- Ebaluatu egingo da ezagutza jakin batzuk eskuratu direla egiaztatzeko. Ebaluazioaren ikuspegi honek **ebaluazio sumatiboaren** esparruan kokatzen gaitu.
- Ebaluatu egingo da ikasleen ikaskuntza prozesuaren zailtasunak eta aurrerapenak antzemateko eta prozesua ikasleen beharrian errealetara egokitzeko. Ebaluazioaren ikuspegi honek **ebaluazio hezitzailearen** esparruan kokatzen gaitu.

Oraintsura arte ebaluazio sumatiboak izan du indarra hezkuntza jardunetan, beraren hautatze-funtzioak eraginda. Ebaluazioa, tradizioz, unitate didaktikoak bukatu ondorengo azterketei, probei, loturik joan ohi da. Horien bidez, gehienetan, ikasleen ezagutzen lorpen maila, eta bereziki, kontzeptuzko ezagutzen lorpena, baino ez da adierazten.

Baina eskola integratzailearen, inklusiboaren ikuspuntutik, ikasleen ahalmenak eta oinarrizko gaitasunen garapena bultzatu nahi dituen eskolaren ikuspuntutik, ebaluazio praktika hori osotu eta bete egin behar da heziketa prozesuan zehar ikasleen beharrianetara egokituz joango den prozesuaren ebaluazio hezitzaile eta globalaren bidez. Argi dago **ebaluazio hau askoz ere konplexuagoa dela; izan ere, ebaluazioa ez du jarduera puntualtzat hartzen, baizik eta ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak aztertzen dituen prozesutzat.**

#### *Noiz ebaluatu?*

Lehenago aipatu den bezala, ebaluazioaren erabilerarik zabalena ikaste eta irakaste prozesuen bukaeran (unitate didaktikoa, gaia) egin ohi den eta ikasleen lorpen maila egiaztatzen duen jarduera puntualaren aurrean jartzen gaitu. Ebaluazio mota honek

kalifikatzeko, informatzeko, maila ezartzeko balio du, baina ez du eraginik ikasketa prozesuaren hobekuntzan.

Neus Sanmarti-k<sup>3</sup> dioen bezala “ ikasleen ahaleginaren eta ebaluazio kalifikatzailearen arteko lotura nabarmentzen denean, ikasleei leporatzen diegu porrotaren errua: horrela, gainditu ezean, ahalegin faltagatik izaten da eta ez sistema soziala diskriminatzailea izateagatik edota ikastetxeetako baliabideek eta antolakuntzak irakasleen lanaren eraginkortasunari ez laguntzegatik edo irakasteko erabilitako metodoak egokiak ez izateagatik (...) ez litzateke ahaztu beharko ebaluazioaren emaitza ona ikaste prozesu onaren ondorio dela, ez, ordea, zergatia.”

Horrenbestez, gaitasunen garapenari begira planteatzen den ebaluazioa ezin da prozesuaren bukaeran soilik gauzatu, prozesuaren aldi guztietan egon behar baitu. Horrela, hasierako ebaluaziorako jarduerak planteatu behar dira aurretiazko ezagutzak azalertzeko (egiten jakiteari, izaten jakiteari eta jakiteari lotuak), ikasleen hasierako egoera ezartzeko eta planifikazioa egoera horietara egokitzeko.

Halaber, jarduerak planteatu behar dira ikasleek prozesuan zehar izan dituzten zailtasunak eta egin duten aurrerapena identifikatzeko, hau da, ebaluazio hezitzailea, erregulatzaila, prozesuaren ebaluazioa, ikaskuntzaren emaitzei zuzen-zuzen eragingo diena; izan ere, ikasi ahal izateko ikasleak bere zailtasunak identifikatzeko gai izan behar du. Horretara, behaketa eta berrikusketa txantiloiak erabiltzea proposatzen da ikasleei ikasi dutenaz gogoeta egiten laguntzeko eta horrenbestez, ikasten ikasteko gaitasuna, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna... garatzen laguntzeko. **Ebaluazioa prozesuaren baitan dagoenean baino ez dira hobetuko azken emaitzak.**

#### *Nork ebaluatu?*

Gaitasunen inguruko ebaluazioaren planteamenduan azpimarratu behar da helburu ezberdinetatik abiatuta, egile ezberdinak direla ebaluatu ahal dutenak eta, era berean, ebaluatu behar dutenak.

Oro har, ebaluazioa irakaslearen esku dago, honek ikas prozesuaren amaieran, ebaluazio sumatiboa egingo du ikasleek ikasitakoaren egiaztatzaile bakar gisa. Irakaslea da, halaber, hasierako eta prozesuaren ebaluaziorako jarduerak planteatzeko ardura duena... Baina, **gaitasunak garatzeko, bizitza osoan zehar luzatuko den ikaskuntza helburua izanik, ikasleak bihurtuko dira ebaluazioaren egile garrantzitsu.**

Ebaluazio hezitzailearen ikuspuntutik, honek ikaslearen ikaste-prozesua erregulatzeko balio behar du, hau da, ikasleek nolako zailtasunak dituzten antzemateko eta zailtasun horiek zertan dautzan jakiteko. Horrenbestez, ikasleek auto-erregulatzeko ikasi behar dute, hau da, honakoak kontrolatzen: zein helburu lortzeko ari diren ikasten, zer egin behar duten ikasteko eta zeintzuk diren erabili behar dituzten irizpideak modu eraginkorrean ikasten ari diren ala ez jakiteko.

Horrek guztiak esan nahi du ikasleek ikaskuntzaren xedea jakin behar dutela, gauzatuko duten lana planifikatu ahal izateko. Alde batetik, irakasleak azaldu, adostu eta negoziatu egin behar du ikasleekin zer nolako atazak egingo dituzten sekuentzia didaktikoan, zertarako diren, nolako prozesua burutuko duten eta zer hartuko den kontuan egindako lana ebaluatzeko. Beste alde batetik, ikasleek berek autoebaluazio

---

<sup>3</sup> **Evaluar para aprender**, Neus Sanmartí. Graó argitaletxea, 92. orrialdea.




eta koebaluzio jardueren bidez irakaste-prozesua nahiz beraien eta ikaskideen ikaste-prozesuak ebaluatuko dituzte.

### Zer ebaluatu?

Gaitasunaren bi definizio hauek kontuan hartzen baditugu: “*Gaitasuna testuingurura egokitutako ezagutzen, trebetasunen eta jarrerren multzoa da*”<sup>4</sup> eta “*Gaitasuna testuinguru jakin batean ataza bat ongi burutzeko trebetasuna da*”<sup>5</sup>, gaitasunak garatu ahal izateko, beraiekin erlazionatutako zenbait ezagutza mota eskuratu eta menperatu behar dira eta aldi berean baliatu testuinguru jakin baten baitan. Horretara, **gaitasunak ebaluatzeak arazo-egoerak ebazteko prozesuak ebaluatzea dakar**.

Horregatik, atazak dira ebaluazioaren abiapuntua, ataza errealak, gutxi edo asko, errealitatean gertatzen denaren berri ematen dutenak. Beraz, **atazak proposatu behar dira** eta beraien bidez oinarrizko gaitasunen garapenari laguntzeko egokienak izan daitezkeen prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko edukiak landu eta lorpen maila adierazten duten ebaluazio-adierazleak zehaztu.

Hala ere, oinarrizko gaitasunek ez dute beren ebaluaziorako erreferentzia argia ematen, baina oso garbi ikus daiteke curriculumeko beste zenbait elementurekin gurutzatzen direla, hala nola, helburuekin, edukiarekin eta bereziki, ebaluazio-irizpideekin<sup>6</sup>. Horrela, oinarrizko gaitasunak irakasgaien edo arloen helburu orokorretan islatzen dira; non biltzen diren gaitasunen garapenerako jakite mota ezberdinak. Horien lorpen maila eta, horrenbestez, erreferentzia diren gaitasunen garapen maila, ebaluazio-irizpideen bidez adierazten da. Azkenik, ebaluazio-irizpideak behatu daitezkeen adierazpen bihurtzen dira ebaluazio-adierazleen bidez; hauek, beraz, ebaluazioaren azken erreferentzetzat har daitezke.



Ebaluazio-adierazleak publikoak dira eta, beraz, Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta irakasgaien eta arloen programazio didaktikoetan ere agertu behar dira. Oinarrizko Hezkuntza ezartzen duen 175/2007 Dekretuaren arabera, Ikastetxearen Curriculum

<sup>4</sup> Europako Parlamentuaren ebazpena, 2006ko iraila

<sup>5</sup> Euridyce, 5. ikerketa, 2002. urtea

<sup>6</sup> Hacia un enfoque de la educación en competencias

<http://www.educastur.es/media/publicaciones/enfoquemail.pdf>

Proiektuak, besteak beste, ondokoak jasoko ditu: “Ziklo edo ikasturte bakoitzeko ebaluazio-irizpideen zehaztapena, etapa bakoitza amaitzean eskuratu beharreko gutxieneko gaitasun-mailak, eta ikasleen ebaluazio- eta promozio-prozesuari buruzko erabakiak”<sup>7</sup>.

### Nola ebaluatu?


Ebaluazio jarduerak jakite mota ezberdinak aldi berean eta era koherentean mugiarazteko ahalmena erakutsi behar dute. Gaitasunen inguruko hezkuntzaz dihardugunean bizitza osoan zehar luzatuko den ikaste-prozesuez hitz egiten ari gara. Argi dago, dena den, gerta litezkeen egoera posible guztiak ezin izango direla hezkuntza praktikan islatu.

Gaitasunen inguruko ebaluazioa ikasleek gutxi edo asko errealak diren egoerei erantzuna emateko duten gaitasuna ebaluatzean datza. Honek jarduera konplexu baten baitan sartzen gaitu; ebaluazioa, horrenbestez, ikas-irakas prozesuetan une ezberdinetan gauzatu da eta egile ezberdinak izango ditu. Ezaugarri horiek, beraz, ebaluazio-tresnen dibertsifikazioa eskatzen dute.

### b) Ebaluazio-tresnak

Ebaluazio prozesuak, aurreko atalean azaldu den bezala, oso konplexuak dira, horrenbestez, ebaluazioa gauzatzeko erabiliko diren tresnak askotarikoak eta ezberdinak izan beharko dira.

Ebaluazio-tresnak bai irakasleak bai ikasleek ikaste-prozesuari buruzko datuak jasotzeko erabiliko dituzten baliabideak dira. Tresna bat edo bestea hautatzea helburuen arabera da.



<sup>7</sup> 175/2007 Dekretua urriaren 16koa

Goiko irudi horrek ebaluazio-tresna multzo bat biltzen du. Baina horietako zenbait tresna helburu ezberdinetarako erabil daitezke eta egile desberdinek erabili ditzakete. Esaterako, **Orientazio-oinarria** (edo kontrol-zerrenda, hau da, testuak antolatzeke zein ekoizteko txantiloia) koebaluazio txantiloia izan daiteke, irakaslearen ebaluazio txantiloia, edo burututako ikaskuntzaren auto-ebaluazio txantiloia.

Aurreko atalean adierazi den moduan, gaitasunen inguruko ebaluazioa gauzatzeko orientabideei dagokienez, ebaluazioa prozesuari lotutako ebaluazio hezitzailearekin erlazionatzen da, hau da, ikaste-prozesua hobetzeko aukera ematen duen ebaluazioaren kontzeptuarekin. Ebaluazio sumatiboak erabilera handia du ikastetxeetan, hori dela-eta, atal honetan, gaitasunen garapenari laguntzeko egokiagoak diren beste orientabide batzuei eman nahi zaie garrantzia.

Beraz, ondoko ataletako ereduaren hautaketan prozesuaren ebaluazio hezitzaileari lotutako adibideak baino ez dira ageri. Tresna horiek hainbat irakasgaitakoak dira, euskaraz zein gaztelaniaz daude eta beraietan zenbait gaitasun antzeman daitezke.

### c) Ebaluazio-tresnen ereduak

#### ***Kontratu didaktikoa***





Ikaskuntza kontratuaren edo kontratu didaktikoaren bidez ikasleek eta irakasleek, modu esplizituan, iritziak partekatu eta elkarrekin erabakitzen dituzte ikaste-irakaste prozesuak gauzatzeko moduak, eta horiek idatziz edo ahoz adierazten dituzte.

Kontratu didaktikoa, besteak beste, ikasten ikasteko gaitasunari, norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasunari, eta gizarterako eta hiritartasunerako gaitasunari loturik dago.



#### *Gelako elkarlanari buruzko kontratuaren ereduak*

##### **Helburuak:**

1.- Talde osoak egingo du aurrera:

-  Lanak egiteko orduan, elkarlanean oinarrituko gara.
-  Taldekideren batek zalantzaren bat edukiz gero, lagundu egingo diogu.
-  Taldearen elkarbizitza behar bezala mantentzen saiatuko gara, eta lan-giro polita sortzen saiatuko gara, bai taldean bai gelan.
-  Denak lan-erritmo bera eramaten saiatuko gara.

2.- Taldearen antolakuntza:

-  Lanerako beharrezko material guztia eramango dugu gelara..
-  Material guztia behar bezala antolatu eta prestatuko dugu.

- ✚ Egindako lanen erantzukizuna hartzen dugu.
- ✚ Taldekide bakoitzaren erantzukizunak onartzen ditugu (idazkaria, bozeramailea, plan-egilea, arduraduna, materialaren arduraduna...), eta betebeharrak horiek behar bezala garatuko ditugu.

3.- Komunikazioak esan nahi du:

- ✚ Ahots normalean hitz egitea, lankideei enbarazurik ez egiteko.
- ✚ Lankideei eta irakasleari entzutea.
- ✚ Arreta jartzea, azaltzen zaiguna ulertzeko.
- ✚ Arazoei eta lanei ematen zaizkien ebazpenetan parte hartzea.

Taldekideek hitzeman dute kontratu honetako akordioak ikasturte osoan errespetatuko eta beteko dituztela. Kontratu hau berrikusi egin daiteke.

Ikasleak	Erantzukizuna
a.....	.....
b.....	.....
c.....	.....
d.....	.....
e.....	.....

Data, eta taldekideen sinadura:

### ***Orientazio-oinarria***

Orientazio-oinarriak taldeka egindako txantiloak dira. Bertan, jarduerak gauzatzeko, prozedurak garatzeko, txostenak idazteko... kontuan hartu behar diren aholkuak eta iradokizunak jasotzen dira.

Orientazio-oinarria edo kontrol-zerrenda ebaluazio txantilo gisa erabil daiteke, ebaluaziorako adierazleak bertan zehaztu ondoren. Kontratu didaktikoan bezala, orientazio-oinarriak estu daude loturik ikasten ikasteko gaitasunarekin, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunarekin eta gizarteko eta hiritartasunerako gaitasunarekin.

*Gizarte Zientzietako gai-mapa baterako orientazio-oinarria.*

- Mapa mota eta daukan informazioa zehaztu.

- Maparen legenda eta mapan bertan agertzen den informazioa aztertu (sinboloak, testua, koloreak, eskalak, etab.
- Mapan agertzen den informazioa, nola dagoen adierazita aztertu.
- Saiatu azalpen arrazoitua ematen eta ondorio eta konklusioak ateratzen.

*Orientazio-oinarria*

<i>Ahozko elkareragina</i>	20..-20.. ikasturtea ..... maila
----------------------------	-------------------------------------

Gai naiz ohiko gaien inguruan aritzeko, baita nire ikuspuntuak azaldu eta defendatzeko. Natural eta jarriotasunez jarduten dut, maiz pentsatu behar izaten badut ere, zein hitz edo zein esapide erabili.

<i>HORRETARAKO, HONAKO EZAUGARRIAK IZANGO DITUGU KONTUAN:</i>	<i>BAI</i>	<i>ORAINDIK EZ</i>
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
10.		

Ikaskideen iritzia:

Irakaslearen iritzia:

## Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako txantiloiak

Ebaluazio tresna hauek oso interesgarriak dira ikasleak baitira ebaluazio egileak, bai beraien ikaste prozesua ebaluatuz, bai beste kideen prozesua ebaluatuz. Tresna hauek ez dira hain sarri erabiltzen ikastetxeetan. Tresna hauek behar bezala erabiltzeko irakasleak irizpide zehatzak eta argiak eman behar ditu eta ikasleek entrenamendua behar dute.

Txantiloia hauetan islatzen diren edukiak aurretiaz ezarritako lanaren helburuei lotuta egon behar dute eta ezagutzak adierazle bidez zehaztuta. Tresna hauek ikasleen autonomian eragiten dute, ikaste prozesuaren gaineko hausnarketa bultzatzen dute eta ikasten eta talde lanean aritzen laguntzen dute, denak oinarritzko gaitasunetan jasotako dimentsioak.

### Heziketa fisikorako autoebaluazioa

The screenshot shows a web page for 'sokasalto gurutzatua'. At the top, there is a search bar with the text 'Buscar en este sitio'. Below it, a navigation menu lists: 1. Helburua, 2. Aurre pausak, 3. Baste pausak, 4. Sokasalto Gurutzatua, 5. Aldaerak, 6. Ebaluaketa, and Sitemap. The main content area is titled '6. Ebaluaketa:' and contains the text 'Bete ondorengo ebaluazio galdetegia eta bidali:'. Below this, there is a section for 'Autoebaluazioa' with a form. The form has a title 'Galdetegi honen bidez egindako lana baloratuko duzu. Bete ondoren zure irakasleari posta elektronikoz bidali.' and a red asterisk indicating it is mandatory. The first question is '1. Idatzi zure izena.' with a text input field. The second question is '2. Zein gelan zaude?' with radio buttons for 'Gela' and options '1.A', '1.B', '1.D', '1.E'. The third question is '3. Baloratu Sokasalto Gurutzatua egiterakoan lortutako maila?' with radio buttons for 'Ez dut lortzen', 'Erdipurdi', 'Ondo', and 'Bikain'.

<https://sites.google.com/site/sokasaltogurutzatua/ebaluaketa>

### Hasierako autoebaluazioa (KPSI)

Data::

	BADAKIT ETA AZAL DEZADET	BADAKIT	BADAKIT ZERBAIT	EZ DAKIT EZER HORRETAZ
Giza eskubideen				

<i>Aldarrikapen Unibertsala</i>				
<i>Sufragio Unibertsala</i>				
<i>Botere banaketas</i>				
<i>Europar Parlamentua</i>				

*Koebaluazio debate batean.*

	<i>EZER EZ</i>	<i>GUTXI</i>	<i>NAHIKO</i>	<i>ASKO</i>
<i>Debatearen arauak be dira</i>				
<i>Talde guztiek parte hartu dute.</i>				
<i>Debatearen giroa errespetutsu izan da.</i>				
<i>Egoera baten argumento alde eta kontra egin dira.</i>				
<i>Azkenean akordio batera ailegatu da.</i>				

*Checklist- Debatea*

	<b>AFFIRMATIVE TEAM</b>			<b>NEGATIVE TEAM</b>		
	1st speaker	2nd speaker	3rd speaker	1st speaker	2nd speaker	3rd speaker
Good introduction						
Supported arguments						
Good conclusion						
Responds the opposition						
Keeps eye contact						
Voice: tone, pitch						
Body language						
Pronunciation						
Understandable						

Total						
-------	--	--	--	--	--	--

*Unitate edo sekuentzia didaktiko baten garapenean egindako lanaren autoebaluazio-plantila*

**Izena:**

**Data:**

	<b>Beti</b>	<b>la beti</b>	<b>Aldizka</b>	<b>la inoiz</b>
Arduratsua izan naiz				
Epeak errespetatu ditut				
Ideiak, kontsulta-iturriak... eman ditut.				
Lan-materialak zaindu ditut				
Nire ideiak eta ikuspuntuak adierazi ditut				
Beste batzuk parte-hartu zezaten lagundu dut				
Nire lankideen lana entzun eta baloratu dut				
Lan guztiak "egunean" izan ditut				
Laborategian segurtasun-neurriak errespetatu ditut				

I

- Idatzi gai hau lantzerakoan ikasi dituzun hiru kontzeptu (lehen ez zenekizkienak):

- 1.
- 2.
- 3.

- Idatzi zeintzuk izan diren ikasteko gehien balio izan dizkizun ariketak

- 1.
- 2.
- 3.



*Proiektu baten gauzatzean aurkezturiko proposamenari buruzko koebaluazio-plantila*

**Ebaluazioa egiten duen pertsona:**

Izena:

Abizenak:

**Pertsona ebaluatua:**

Izena:

Abizenak:

<b>IKASKIDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:</b>	
<b>Ondo justifikatua al dago?</b>	
<b>Zer arazo ikusi dizkiozu?</b>	
<b>Behar bezala lotu al zaio hasieran egin zitzaizuen proposamenari?</b>	
<b>Zerbait gomendatuko al zenioke bere ezaguerak hobetzeko?</b>	

*Taldelanari buruzko koebaluazio-plantila*

Egin gurutze bat dagokion tokian

	<b>Batzuetan</b>	<b>Beti</b>	<b>Inoiz ez</b>
Lanaren antolaketan parte hartu du			
Taldeak esleitu dion papera bere gain hartu du			
Berari zegokion lanaren zatia egin du			
Beste taldekideei ere parte hartzen utzi die			
Taldean azaldu diren zalantzak argitzen lagundu du			
Poztu egin da taldekideren batek lanerako ideiarene bat izan duenea			

*Burututako proiektu baten autoebaluazio-plantila*

1) Kontentu nago proiektuaren azken emaitzarekin:

Ez	1	2	3	4	5	Oso
----	---	---	---	---	---	-----

2) Proiektuko hainbat ikuspunturi buruzko balorazioa:

Idea:

oso gaizki	1	2	3	4	5	oso ondo
------------	---	---	---	---	---	----------

Zergatik?

Zein izan da gure lanaren emaitza?

oso txarra	1	2	3	4	5	oso ona
------------	---	---	---	---	---	---------

Zergatik?

Nire ustez, proiektua izan da...

oso erraza	1	2	3	4	5	oso zaila
------------	---	---	---	---	---	-----------

Zer izan da zailena?

3) Lan osoaren balorazioa:

Zenbat ikasi dut?

Ezer	1	2	3	4	5	Asko
------	---	---	---	---	---	------

Zer ikasi dut?

## HAUSNARTZEKO

*“Lehengo batean, ikasle batek irakasleari galdetu zion ebaluazioko emaitzetan zenbat balioko zuen egiten ari ziren lanak, eta irakasleak erantzun zion erabaki gabe zuela eta pentsatuko zuela ”*

- Erantzun horrek ebaluazioaren zer ikuspegi islatzen du? Gaitasunen inguruko ebaluazioari begira zein puntutaraino da egokia?
- Zein da ebaluazioaren helburua oinarrizko gaitasunen garapenaren ikuspegi koherentetik abiatuta?
- Zer-nolako ebaluazio jarduerak egiten dituzue ikasleekin oinarrizko gaitasunen garapena sustatzeko?
- Ados zaudete ebaluazioak ikasleei nota jartzeko baino ez duela balio baieztapenarekin? Zein puntutaraino uste duzue hori horrela dela?
- Ikastetxean, ebaluazio-irizpideak irakasle bakoitzak erabakitzen ditu ala mintegietako kideen artean modu bateratuan erabakitzen dira?
- Zuen ikastetxean jakin arazi, argitaratu egiten dira ebaluazio-irizpideak? Ikastetxeko zein agiritan jaso dira? Ikasleek badute horien berri? Eta familiek?
- Ikastetxean planteatzen da irakasleen lana ebaluatzeko jarduerarik? Zuen ustez, irakasleen lanaren zein alderdi ebalua lezakete ikasleek?

## 4. MATERIAL DIDAKTIKOA

### a) Sekuentzia didaktikoaren ezaugarriak

*“Ikastea helburu duen edozein esperientziaren eduki erabat garrantzitsua ikaskuntza gauzatzea ahalbidetzen duen metodoa edo prozesua da (...) Garrantzitsuena ez da jendeari zer kontatzen diozun, zer eginarazten diozun baino”<sup>8</sup>*

Aurreko ataletan IKASKUNTZA AKTIBOAZ eta ikasleek ikaskuntza hori gauzatzeko behar dutenaz esandakoa abiapuntutzat harturik, ezinbestekoa da **eredu didaktiko** bat bilatzea ikasgelako jarduera didaktikoa planifikatu eta antolatzeko; eta, horrela, aipatutako planteamendu metodologikoei erantzun eta oinarritzko gaitasunen garapenari lagundu ahal izateko.

Proposatzen den eredua **sekuentzia didaktikoa** da. Honek **azken ekoizpen bat lortzera bideratuta dauden elkarri loturiko jarduerak biltzen ditu.**

Sekuentzia didaktikoak, besteak beste, ondoko ezaugarriak ditu:

- Ikasgelan lantzeko **unitatea** eratzten du eta **hala identifikatu** behar da.
- Bizitza errealari lotutako **egoerak edo arazoak planteatzen** ditu.
- Ikasleen bizitzari lotutako **testuinguruak islatzen** ditu.
- Ikaskuntza **helburu zehatza** du.
- **Ebaluazioa dauka barruan**; izan ere, prozesuaren atal garrantzitsua da.
- Ikasitakoa **beste egoera batzuetan baliatzeko** aukera ematen du.

Jarduera didaktikoa planteatzeko modu honek ikaskuntza eduki ezberdinak biltzen ditu era koherentean, ikaskuntza globalaren eta aktiboaren mesedetan, material askok erakusten duten edukien arteko zatiketarik ihesi; eta horrenbestez, edukiei zentzua, funtzionaltasuna, ematen die. **Ikasleek egiten ikasiko dute, baina eginez.**

Ondoren dauden eskemek ezaugarri horiek biltzen dituzte. Alde batetik, jarduerak antolatzeko irakaslearentzako lan-eskema; eta, bestetik, ikasleei begira planteatzen den gelako sekuentziaren eskema. Honek hiru atal hauek ditu: **planifikatzea, gauzatzea eta erabiltzea.**

---

<sup>8</sup> Breen M.P. **Paradigmas actuales en el diseño de programas de lenguas**. Comunicación, Lenguaje y Educación aldizkaria 7-8 zkia. 1990. urtea

## b) Sekuentzia didaktikoaren planifikazioa

### LAN-ESKEMA

---

**Irakasgaiak:**

**Gaia:**

**Maila:**

**Saio kopurua:**

**Proposamenaren testuingurua:**

**Landuko diren oinarrizko gaitasunak:**

**Helburu didaktikoak:**

**Edukiak:**

**Jardueren sekuentzia\*:**

- a) Planifikatzea
- b) Gauzatzea
- c) Erabiltzea

**Ebaluazioa:**



*Adierazleak:*

*Tresnak:*

Jardueren sekuentzian

Irakasleak erabiliko duen beste edozein

## JARDUEREN SEKUENTZIA\*



### ONARRIZKO GAITASUNEN GARAPENA

IKASITAKOA BESTE EGOERA BATZUETAN BALIATZEA

### c) Gaitasunen inguruko lana gauzatzeko material egokiak

Ondoren aipatuko diren materialek ikuspegi metodologiko egokia dute oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko: metodologia aktiboa proposatzen da denetan, ikaste-prozesuan ikaslea inplikatzeko bilatzeko.

#### ■ **Natura Zientziak** arloa.

##### 1. **Más Ciencia: Ciencia, tecnología y sociedad en Secundaria** (ISBN 84-7753-825-5)

Zientzia-Teknologia-Gizartea (ZTG) delakoaren ikuspegia dute liburu honetako Unitate Didaktikoek. Ikuspegi horretan, hau da helburu nagusia: herritarrak zientziaren eta teknologiaren aldetik alfabetatzea, informazio egokia eduki dezaten erabaki egokiak hartzeko, eta erantzukizunez jardun dezaten.

[http://www.catedu.es/cienciaragon/index.php?option=com\\_content&view=article&id=431&Itemid=132](http://www.catedu.es/cienciaragon/index.php?option=com_content&view=article&id=431&Itemid=132)

##### 2. **Euskal Autonomia Erkidegoko aztarna ekologikoa**

**Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020)** helburu hau zehaztu du: baliabideen kontsumoak eta horren ondorioek ingurumenaren karga-eta birsorkuntza-ahalmena ez gainditzea. Ikuspegi horretatik euskal gizartea zer egoeratan dagoen neurtzeko, **aztarna ekologikoa** da adierazle nagusietako bat.

Pdf formatuko dokumentuak:

[Huella ecológica en la Comunidad Autónoma del País Vasco \(2.239 kb\)](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko aztarna ekologikoa \(2.239 kb\)](#)

##### 3. **Bioteknologia ikasgelan. Unitate didaktikoak.**

EIBEk (*European Initiative for Biotechnology Education*) sortutako unitate didaktikoak.

Helbide honetan topa daitezke: <http://webs.elkarrekin.org/ccmc/node/104>

##### 4. **IBERCIVISen material didaktikoa**

###### – **Zientzia eta herritartasuna**

Zientzia eta ikerketa denon eskura

[http://www.ibercivis.es/index.php?module=public&section=channels&action=view&id\\_channel=4&id\\_subchannel=38&id\\_page=39](http://www.ibercivis.es/index.php?module=public&section=channels&action=view&id_channel=4&id_subchannel=38&id_page=39)

###### – **Proteina-dockinga**

Minbiziaren aurkako sendagaiak aurkitzeko ikerkuntza

[http://www.ibercivis.es/index.php?module=public&section=channels&action=view&id\\_channel=3&id\\_subchannel=34&id\\_page=15](http://www.ibercivis.es/index.php?module=public&section=channels&action=view&id_channel=3&id_subchannel=34&id_page=15)

###### – **Fusio nuklearra**

Fusio nuklearra: etorkizunerako energia

[http://www.ibercivis.es/index.php?module=public&section=channels&action=view&id\\_channel=3&id\\_subchannel=33&id\\_page=10](http://www.ibercivis.es/index.php?module=public&section=channels&action=view&id_channel=3&id_subchannel=33&id_page=10)

##### 5. **Unitate didaktikoa: SATISen erabaki zaila**

SATIS (*Science And Technology In Society*) proiektuaren unitateetatik, honako hau nabarmendu behar dugu, oso egokia da-eta gaitasun hau garatzeko: *Erabaki zaila* (ingelesez).

Helbide honetan topa daiteke:

<http://www.satisrevisited.co.uk/difficultdecisions.asp>

**6. Beep Proiektua (ingelesez)**

Biologia eta Etika ikasgaiak uztartzeko Bristolgo Unibertsitatearen proiektua. Bikaina da. Argudiatzen irakasteko jardueran ditu, besteak beste.

<http://www.beep.ac.uk/content/index.php>

**7. Beep Proiektua (ingelesez)**

Fisika eta Etika ikasgaiak uztartzeko Bristolgo Unibertsitatearen proiektua. Bikaina da. Argudiatzen irakasteko jardueran ditu, besteak beste.

<http://www.peep.ac.uk/content/index.php>

**8. Planetako larrialdi egoeratik etorkizun iraunkorra eraikitzea (ikasleentzako materiala).**

Daniel Gil eta Amparo Vilchesek diseinatutako programa bat da, ikasleentzako hainbat jardura dituena: [Por un Futuro sostenible.Material para el Alumnado.pdf](#)

Lurra mehatxatzen duten arazoak ikertzea ezinbestekoa da konponbide egokiak aurkitzeko eta jakiteko zer neurri hartu behar diren haiek gainditzeko.

Helbide honetan topa daiteke: <http://webs.elkarrekin.org/ccmc/node/14>

**9. Actúa con tu consumo (Eragin ezazu kontsumoaren bitartez)**

Greenpeaceren proiektu bat da, kontsumo arduratsuaren gaineko hezkuntzarako multimedia tresna. 13 urtetik gorako gazteentzat dago diseinatuta, kontzienteagoak eta kritikoagoak kontsumitzen ikasteko.

Dohainik eskuratu daiteke Greenpeaceren *webetik*:

<http://consumo.greenpeace.es>

**10. APQUA proiektuaren unitate didaktikoak**

Helbide honetan topa daitezke:

<http://www.etseq.urv.es/APQUA/cast/secundaria.htm>

APQUA proiektuaren modulu guztiek garatzen dute gaitasun hau, baina guztietatik haiek nabarmendu behar ditugu:

**Zuzentasuna eta iraunkortasuna:**

<http://www.etseq.urv.es/APQUA/equitatisostenibilitat/>

**Elikadura eta iraunkortasuna:**

<http://www.etseq.urv.es/APQUA/alimentacionysostenibilidad/>

**11. Intermón Oxfam erakundearen unitate didaktikoak: *Global Express***

<http://www.intermonoxfam.org/es/page.asp?id=10>

*Global express* hezkuntza-tresna bat da, mundu mailako gaiak eta gertaerak lantzeko materiala eskaintzen duena. Helburua da ikasleek ikuspegi kritikoak garatzea, mundu osoaren egoera ulertu dezaten (berezik, garatze-bidean dagoen munduarena).

■ **Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloa.**

**Proiektuak:**

**Gea-Clío proiektua. Xosé Manuel Soutoren eredu antolatzailea.**



GEA-CLÍO proiektuan, zientzietako diziplinetatik abiatuta aztertzen dira gizarte- eta ingurumen-arazo nagusiak.

### **Kairos proiektua (Multimedia)**

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Historia irakasleei laguntzeko programa da KAIROS.

KAIROS proiektuan, lau proposamen eskaintzen dira, bai eta elkarrekin komunikatzeko gune bat ere.

Honelaxe aurkezten dira historia gai batzuk proiektu honetan: gaur egungo kontuetatik abiatzen bada ere, gaiok ez dira mugatzen garai jakin batera; aldiz, denboran eta espazioan zehar mugi gaitzke haien bitartez, betiere gaur egungo kezkek ahaztu gabe.

### **IRES proiektua**

#### ***Modelo Didáctico de Investigación en la Escuela (Eskolan ikertzeko eredu didaktikoa)***

Hona izaera alternatiboko eredu didaktiko honen hezkuntza-helburua: "ikasleek jakintza aberastea" errealitatearen ikuskera konplexuagoa eta kritikoagoa izan dezaten, eta, horretan oinarrituta, erantzukizunez joka dezaten errealitate horretan.

### **13-16 proiektua**

Historiako 14 unitate didaktikok osatzen dute 13 eta 16 urte bitarteko gazteentzako proiektu hau. Unitate didaktiko guztiek egitura bera dute: unitatearen deskripzioa, helburuak, edukiak, estrategiak, informazio gehigarria eta –zenbaitetan– bibliografia; amaieran, aurreko unitateak ebaluatzeko kapitulu bat dago.

### **Unitate didaktikoak:**

#### **Arrate Uranga (Eibarko Berritzegunea)**

Hiru sekuentzia didaktiko dira, beren-beregi gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lantzeko diseinatuak. Irakasle-jarduna da abiapuntua.

- ***Desberdintasun sozialak eta kulturalak***  
<http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/socialespymes/dbh/Sekuentzia2DBH.pdf>
- ***Giza garapenaren desberdintasunak***  
<http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/socialespymes/dbh/Sekuentzia3DBH.pdf>
- ***Desberdintasun sozio-ekonomikoak gaurko mundu antolaketan***  
<http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/socialespymes/dbh/Sekuentzia4DBH.pdf>

#### **Global express**

*Global express* hezkuntza-tresna bat da, mundu mailako gaiak eta gertaerak lantzeko materiala eskaintzen duena. Proposamen didaktiko bat da ardatza, eta irakaslearentzako kasuan kasuko orientabideak eskaintzen ditu, bai eta gaiaren testuinguruaren gaineko informazioa ere.

- ***Camino a Huambo***
- ***Haití: cuando la tierra tiembla***
- ***El petróleo, una riqueza envenenada***

**Historia, Kairós y Cronos, Pablo Antonio Torres Bravo, Ediciones de la Torre. Madril, 2001.**

DBHko 4. mailako hasierako unitatetzat lantzeko diseinatuta dago unitate didaktiko hau, baina aurreko mailetan erabiltzeko molda daiteke. Historiako gertaerarik esanguratsuenak eskaintzen dizkie ikasleei, prozesu historikoak denbora-mapa koherente batean kokatu, eta prozesuon arteko loturak identifika ditzaten.

**Viaje a la Antártida: taller de historia y de escritura. Elkarlanerako Dolors Quinquer-en proiektua.**

Proiektu honetan, kontakizun bat idatzi behar dute ikasleek –DBHko talde oso batek, elkarlanean–; bertan, birsortu egin behar dute XX. mendearen hasierako (esplorazioen garai *heroikoa*) Antartikarako bidaia bat.

**Milurteko helburuak. Ihitza aldizkaria.**

[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4155/eu/contenidos/boletin\\_revista/ihitza32/eu\\_ihitza/index.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4155/eu/contenidos/boletin_revista/ihitza32/eu_ihitza/index.html)

**Los movimientos de población.**

**Berritzegune Nagusia. Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloko aholkularitza.**

Erakusten du nolakoak izan diren populazio-lekualdatzeak historian zehar. Iraganeko eta gaur egungo egoerak analizatzen ditu.

#### **Simulazioak:**

***Iter-itineris: una euroaventura medieval.***

Erdi Aroko Erdialdeko Europako familia baten gorabeherak erakusten ditu *Iter-itineris* on-line joko interaktiboak. Hona aurkezpeneko berba batzuk: "Brujas, 1349 Europa entera sucumbe ante la epidemia de peste negra que diezma a la población..."

***La historiadora.***

Elizabeth Kostova-ren *Historialaria* eleberrian oinarritutako on-line abentura.

#### **Webquestak:**

- ***Los niños de la guerra.* Ana Basterra y Carlos Puerta.**  
[www.saretik.net/gudarenumeak](http://www.saretik.net/gudarenumeak)
- ***La revolución industrial.* Ana Basterra.**  
[http://www.phpwebquest.org/wq2/webquest/soporte\\_tabbed\\_w.php?id\\_actividad=2550&id\\_pagina=1](http://www.phpwebquest.org/wq2/webquest/soporte_tabbed_w.php?id_actividad=2550&id_pagina=1)

#### **Animazioak:**

##### **Studio Dogma**

- *La imagen medieval, Isaac.*
- *Cronología de la Edad Moderna.*
- *Guerras de religión.*
- *Primera Guerra Mundial.*
- *Segunda Guerra Mundial.*
- *Mapa animado de la Unión Europea.*
- *La Guerra de Iraq.*

## **Bisita birtualak:**

### ***Ars virtual***

Ondarearen mapa. [www.fundaciontelefonica.com/arsvirtual](http://www.fundaciontelefonica.com/arsvirtual)

## **Kolaborazio-proiektuak, lankidetzeta-proiektuak eta proiektu telematikoak:**

Internet bizkor hazi izanak aukera eman du Gizarte Zientzien alorrean lankidetzeta-esparruak eta izaera telematikokoak sortzeko.

### ***Educalia***

<http://www.educalia.org/>

### ***Kli eta klik***

[www.kliketaklik.com](http://www.kliketaklik.com)

### ■ ***Gorputz Hezkuntza arloa.***

## **Gorputz Hezkuntza kooperatiboa**

Gorputz-jarduera kooperatiboen gaineko baliabideak, berriak eta foroak biltzen ditu web-orri honek: <http://educacionfisicacooperativa.org/>

## **Kooperaziorako eta bakerako jolasak**

Web-orri honen bidez, bakerako heziketarekin lotutako jarrerak eta balioak garatzeko jolasak bildu eta zabaldu nahi dira:

[http://www.ctv.es/USERS/avicent/Juegos\\_paz/](http://www.ctv.es/USERS/avicent/Juegos_paz/)

## ***Acció i cooperació***

Josep Invernó irakasle katalanaren blog hau kooperazio-paradigmaren barruko esperientzia pedagogikoak kontsultatzeko interesa duten pertsoneri dago zuzenduta:

<http://www.josepinverno.com/>

## **Antzinako ume jolasak**

Blog honek, zer esanik ez, garai bateko ume-jolasak jorratzen ditu:

<http://www.aintzinakojolasak.blogspot.com/>

### ■ ***Musika arloa.***

#### **\* Musikaren aldiak**

Musikaren eboluzioaren gaineko kontzeptu-mapa:

[http://cmapspublic2.ihmc.us/servlet/SBReadResourceServlet?rid=1230836599677\\_100314499\\_29794&partName=htmltext](http://cmapspublic2.ihmc.us/servlet/SBReadResourceServlet?rid=1230836599677_100314499_29794&partName=htmltext)

Beste orri batzuekiko estekak ditu: orriotan, musikaren aldietako testuinguruak ezagutzeko gakoak topa daitezke.

#### **\* Munduko tresnak**

Hainbat herrialdetako eta kulturatako tresnen eta musika moten gaineko orri interesgarria da hau: <http://grups.blanquerna.url.edu/m45/videosmon/index.htm>

#### **\* Europako kantu herrikoiak**

Europako kantu herrikoiak biltzen ditu proiektu honek, eta web bidezko lankidetzara zabalik dago: [http://www.xtec.es/rtee/europa/index\\_esp.htm](http://www.xtec.es/rtee/europa/index_esp.htm)

#### **\* Aho Bete Kanta**

Euskal musika herrikoia gaineko orri honetan, XX. mendeko azken 40 urteetako 230 konposizio bildu dituzte: <http://ahobetekanta.arteola.com/>

### \* **Ikasbil**

Web-orri honetan, 91 euskal kantu tradizional topa daitezke, alfabetikoki ordenatuta eta bakoitza bere partiturarekin, letrarekin, *midia*rekin eta –zenbaitetan– mp3rekin:

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/mediatype/html/language/eu/user/anon/page/kantuakmota>

### \* **Gure musika-eskolako arauak.**

Irudi bidezko aurkezpen honetan, ikasleek musika-eskoletan bete beharreko arauak erakusten dira, gustura egon daitezen ikasten duten bitartean:

<http://s573.photobucket.com/albums/ss172/musicameruelo/Normas-ClaseMusica-Mariajesus/?action=view&current=DSC00036.jpg>

### \* **Musika eta giza eskubideak: musika fitxak**

Musika-fitxa batzuk erabilia eta haiei dagozkien musikak edo kantuak entzunda, eztabaidak sortu nahi dira jarduera hauen bitartez giza balioetan oinarritutako hezkuntzan sakontzeko: <http://www.amnistiacatalunya.org/edu/musica/es/fichas-presen.html>

### \* **Emakume musika-sortzaileak**

Bigarren Hezkuntzako zenbait irakaslek idatzi dute liburu hau, Emakumeen Institutuaren babesarekin; ikasleek musika-konposizioak emakumeen egintza gisa ere ikertzea da helburua:

[http://www.inmujer.migualdad.es/mujer/publicaciones/docs/Creatoras\\_musica.pdf](http://www.inmujer.migualdad.es/mujer/publicaciones/docs/Creatoras_musica.pdf)

### \***Musika, bakerako tresna**

Proposamen didaktiko honetan, bakerako hezkuntzako zenbait eduki lantzen dira, sei musika-konposiziotatik abiatuta:

<http://escolapau.uab.cat/img/programas/educacion/publicacion010e.pdf>

#### ■ **Plastika eta Ikus Hezkuntza arloa.**

#### **Unitate didaktikoak:**

Artistak eta hiri-paisaia:

[http://www.transversalia.net/index.php?option=com\\_content&task=view&id=14&Itemid=45](http://www.transversalia.net/index.php?option=com_content&task=view&id=14&Itemid=45)

Artea eta gerrak:

[http://www.transversalia.net/index.php?option=com\\_content&task=view&id=4&Itemid=49](http://www.transversalia.net/index.php?option=com_content&task=view&id=4&Itemid=49)

#### **Webquestak:**

*Pop art* delakoa ezagutzeko:

[http://www.phpwebquest.org/wq25/webquest/soporte\\_tabbed\\_w.php?id\\_actividad=8675&id\\_pagina=1](http://www.phpwebquest.org/wq25/webquest/soporte_tabbed_w.php?id_actividad=8675&id_pagina=1)

Prado museoko lanak kronologikoki ordenatzeko:

<http://www.museodelprado.es/pradomedia/multimedia/cronologia/>

#### ■ **Euskal hizkuntza eta Literatura.**

#### **Hizkuntzen Trataera Bateratua Programako unitate didaktikoak:**

– <http://trataerabateratua.wordpress.com/>

– *Herrialde garatuak eta garabidean daudenak. Monografia* (azalpen-testuan oinarrituta, ikasleek monografia idatziko dute herrialde aberatsen eta pobreen arteko aldeak ikustarazteko asmoz):

<http://bloggeandolenguas.com/htb.til/DBH3Monografiaikasleak.pdf>.

- *Gazteak eta gizartea* (bizikidetzaren oinarri edukita, eta gizarte arazoak, gazteen kezka eta gatazka hizpide hartuta, mahai-ingurua –gaztelaniaz– eta kexa-gutuna –euskaraz– gauzatuko diren proiektu honek biltzen dituen bi unitateen bidez): <http://bloggeandolenguas.com/htb.til/DBH3Kexagutunalkasleak.pdf>.

#### **Sekuentzia didaktikoak:**

- *Eztabaidatzen* (ikasleen intereseko gaien inguruan, iritzia emateko eta interakzioan aritzeko arauak adostea eta argudioak adierazteko hizkuntza-jarduerak gauzatzea): <http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/elkarreragina2DBH.pdf>
- *Arazoak konpontzen* (hizkuntzen inguruko lana ardatz gisa hartuta eta narrazio batean oinarriturik eskolan sarri bizi izaten diren bazterkeria-egoerak aztergai, argudioak adieraztea eta aholkuak ematea): <http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/lenguaspymes/DBH/arazoak%20konpontzen.pdf>

#### **Webquestak:**

- *XXI. mendearen erronkak* (taldeka, XXI. mendeko gizartearen alderdi jakin bati buruzko ikerketa egin, eta mundu garatuak eta mundu ez-garatuak bizi dituzten egoerak konparatuko dira): <http://bloggeandolenguas.com/webquest/XXI.%20MENDEAREN%20ERRONKAK/index.htm>
- *Edertasunaren inguruko hainbat gogoeta* (Zer da edertasuna? Non dago? Hausnarketarako proposamena. Azken ekoizpena: manifestua): <http://www.saretik.net/ticlenguas/webquestdelcurso/plantillagaratu%20Karmina1/plantillagaratu%20Karmina1/index.htm>

#### **■ Lengua Castellana y Literatura.**

#### **Hizkuntzen Tratatua Bateratua Programako materialak. Unitate didaktikoak:**

- *Los hablantes y las lenguas* <http://bloggeandolenguas.com/htb.til/ESO1ExposicionOral.pdf>
- *Jóvenes y Sociedad. Mesa redonda* <http://bloggeandolenguas.com/htb.til/ESO3MesaredondaAlumnos.pdf>

#### **Sekuentzia didaktikoak:**

- *Opinamos sobre las lenguas* [http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/opinamos\\_sobre\\_lenguas.pdf](http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/opinamos_sobre_lenguas.pdf)
- *Princesas de ayer y hoy.* <http://poesiaymusica.wordpress.com/>
- *La diversidad sociocultural: las religiones y las lenguas.* <https://docs.google.com/fileview?id=0B0-6OJkSTXEYNzAzM2RmNWEtMzE1YS00N2E4LWJiYzUtY2Y5ZDVmMDU3Yzlw&hl=es>

#### **Webquestak:**

- *El 8 de marzo* (Altxorraren bila) <https://sites.google.com/site/conmemoraciondel8demarzo/>
- *Los retos del siglo XXI* <http://bloggeandolenguas.com/webquest/retosigloXXI/index.htm>

- Cuando suena el móvil, ¿no oyes el disparo a lo lejos?  
<http://bloggeandolenguas.com/webquest/COLTAN/COLTAN/COLTAN%20REVISADA/index.htm>

■ **Atzerriko Hizkuntza.**

**Unitate didaktikoak:**

- *How did Europe come to be (Conflicts and Wars)* **BHINEBI S1U2**
- *Famous Europeans* (scientists, inventors, artists, writers, athletes, adventurers, entertainers, kings, queens, leaders, reformers and philosophers) **BHINEBI S1U3**
- *Taking Care of Others* (Human Rights, ONG) **BHINEBI S2U3**
- *Human Beliefs* (World Religions) **BHINEBI S4U1**
- *Human Thoughts* (Ethics) **BHINEBI S4U2**
- *Human Deeds* (Politics) **BHINEBI S4U3**

**Webquestak:**

- *Human Rights*: <http://tinyurl.com/6djkmza>
- *Child soldiers*: <http://tinyurl.com/5uzn6tt>
- *Copyright laws*: <http://tinyurl.com/5rhzufs>
- *What is copyright?*: <http://tinyurl.com/674yxj7>
- *The road to democracy*: <http://tinyurl.com/649atnr> and <http://tinyurl.com/5ukcrdy>

■ **Matematika arloa.**

**1.- Parece mentira**

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lantzeko lana da hau, matematika abiapuntu hartuta; Tenerifeko Santa Cruzeko Realejos Bigarren Hezkuntzako Institutuko matematika irakasleak dira egileak:

[http://www.aecid.es/export/sites/default/web/galerias/programas/premio\\_nacional\\_edu\\_desarrollo/descargas/0104-PARECEMENTIRAweb.pdf](http://www.aecid.es/export/sites/default/web/galerias/programas/premio_nacional_edu_desarrollo/descargas/0104-PARECEMENTIRAweb.pdf)

**2.- Educación matemática y ciudadanía. Propuesta de derechos humanos**

Mari Luz Callejo irakaslearen lan honetan, matematika irakasteko proposamen bat aurkezten da, kontzientzia kritikoaren dimentsioetan oinarritutako hiru ardatz hauetan artikulatua: nola eratzten diren subjektuak, nola eraikitzen den ezagutza eta kudeaketa demokratikoa:

[http://volensamerica.org/IMG/pdf/educ\\_matematica\\_ciudadania.pdf](http://volensamerica.org/IMG/pdf/educ_matematica_ciudadania.pdf)

**3.- “La aspiración a la ciudadanía y el desarrollo de la competencia matemática”**

Jesus Mari Goñi irakaslearen artikulua, *UNO* (282 zk.)-2010 matematika aldizkarikoa.

**4.- “Matemáticas: mente disciplinar, mente creativa, mente ética. Una propuesta de educación ciudadana”**

Inés Gómez-Chacón irakaslearen artikulua. *UNO* (282 zk.) matematika aldizkaria, Graó, 2010.

**5.- “Matemáticas para la ciudadanía”**

Claudi Alsina irakaslearen artikulua. *UNO* (282 zk.) matematika aldizkaria, Graó, 2010.

**6.- “Participación, diversidad lingüística y aprendizaje matemático”**

Nuria Planas irakaslearen artikulua. *UNO* (282 zk.) matematika aldizkaria, Graó, 2010.

**7.- “Aprender a enseñar matemáticas y educar en ciudadanía”**

Joaquín Jiménez eta Yuli M<sup>a</sup> Vanegas irakasleen artikulua. *UNO* (282 zk.) matematika aldizkaria, Graó, 2010.

**8.- *Informes sobre el Desarrollo Humano del Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo (PNUD), año 2010***

Nazio Batuen lan honetan (Giza Garapenaren gaineko Txostena - 2010), herrialdeen benetako aberastasuna aztertzen da. Hau da bigarren izenburua: *La verdadera riqueza de las naciones: Caminos al desarrollo humano*.

<http://hdr.undp.org/es/informes/mundial/idh2010/capitulos/es/>

## HAUSNARTZEKO

*“Aurreko batean klaustroan norbaitek esan zuen “X” eguna ospatuko zenez, diziiplina arteko proiektua gauzatu litekeela. Proposamenak ez zuen erantzunik jaso”*

- Zergatik da hain zaila, zuen ustez, irakasgaien antolaketak ezartzen dituen mugak haustea? Ez dago kontraesana oinarrizko gaitasunek aldarrikatzen dutenarekin?
- Ados zaudete irakasgai edo arlo bakoitza mundu bat dela eta besteekin erlaziorik ez duela baieztapenarekin?
- Erabili ohi duzuen testu liburuko unitate didaktikoen antolaketari egokiena irizten diozue?
- Ikasgelan proposatzen dituzuen jarduerak eta ariketak noraino daude ikasliburuaren menpean? Menpekotasun osoa dute? Ala planteamenduak aldatu eta moldatu egiten dituzue? Osatu egiten dituzue planteamendu horiek?
- Proposatzen dituzuen jarduerak elkarrekin lotuta daude azken helburu bat lortzeko? Helburu argia dute ala ariketa solteak dira?
- IKTak ikasgelako jardueretan txertatuta daude? Zein neurritaraino? IKTek eskaintzen dituzten aukera didaktikoak baliatzen dituzue?



## 5. BIBLIOGRAFIA

Egile anitz (2007), **Las competencias básicas y el currículo: orientaciones generales**, Cuadernos de Educación 2, Consejería de Educación de Cantabria.

[http://213.0.8.18/portal/Educantabria/Descargas/Publicaciones/2007/Cuadernos\\_Educacion\\_2.PDF](http://213.0.8.18/portal/Educantabria/Descargas/Publicaciones/2007/Cuadernos_Educacion_2.PDF)

Egile anitz (2010), **Ciudadanía**. Iber aldizkaria: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia. 64 . alea. Monografikoa

Egile anitz (2000). **Enseñar y aprender la democracia**. Síntesis Educación.

Egile anitz (2009), **Competencia social y ciudadana**, AULA DE INNOVACIÓN EDUCATIVA, 187. alea. Monografikoa.

Egile anitz (2008), **Hacia un enfoque de la educación EN COMPETENCIAS**, Consejería de Educación y Ciencia de Asturias.

<http://www.educastur.es/media/publicaciones/enfoquemail.pdf>

Egile anitz (2009). **Aprendizaje Servicio (ApS)**. Graó argit., Bartzelona.

Egile anitz (2002), **Cinco ciudadanías para una nueva educación**, Graó argit., Bartzelona.

Egile anitz (2003), **Ciudadanía, poder y educación**. Graó argit., Bartzelona.

Egile anitz (2007), **La enseñanza de los Derechos Humanos: abc. Actividades prácticas para escuelas primarias y secundarias**. Unesco etxea.

Egile anitz (2005), **Antropología en el aula**. Síntesis educación argit. Madril.

DE VICENTE ABAD, J. (2011), **7 ideas clave. Escuelas sostenibles en convivencia**. Graó argit., Bartzelona.

ESCAMILLA, A. (2008), **Las competencias básicas. Claves y propuestas para su desarrollo en los centros**, 21. alea "Crítica y fundamentos" bilduma, Graó argit., Bartzelona.

LEVIN, L. (1999), **Derechos humanos. Preguntas y respuestas**. Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz.

LUENGO ORCAJO, F. (2011), **Teoría y práctica de las competencias básicas**. Graó argit. Bartzelona.

MARINA, J.A.,(2007), **Competencia Social y Ciudadana**, Alianza argit. Madril.

PARCERISA, A. (2003), **Planificación y análisis de la práctica educativa**, 181. alea, Graó argit. Bartzelona.

PÉREZ GÓMEZ, A. (2007), **La naturaleza de las competencias básicas y sus aplicaciones pedagógicas**, Cuadernos de Educación 1, Consejería de Educación de Cantabria.

[http://213.0.8.18/portal/Educantabria/Descargas/Publicaciones/2007/Cuadernos\\_Educacion\\_1.PDF](http://213.0.8.18/portal/Educantabria/Descargas/Publicaciones/2007/Cuadernos_Educacion_1.PDF)

PERRENOUD, P.(2004), **Diez nuevas competencias para enseñar**, Graó, Bartzelona.

SANMARTÍ, N. (2007), **Evaluar para aprender**, Ideas Claves bilduma, Graó, Bartzelona.

ZABALA, A. eta ARNAU, L. (2007), **Cómo aprender y enseñar competencias**, Ideas Claves bilduma, Graó, Bartzelona.

(2006), **Europako Parlamentuaren ebazpen legegilea, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruz egindako Gomendio-proposamenari buruzkoa.**

[http://www.europarl.europa.eu/meetdocs/2004\\_2009/documents/pr/609/609848/609848es.pdf](http://www.europarl.europa.eu/meetdocs/2004_2009/documents/pr/609/609848/609848es.pdf)

(2007) **Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzeko dekretua**, HAAE, azaroaren 13koa.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/es\\_5495/adjuntos/v\\_eranskin\\_a\\_01\\_hizkuntzak.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/v_eranskin_a_01_hizkuntzak.pdf)